



EHUtik kaleratutako irakasleek «konponbide duin eta justua» eskatu dute, 25. urteurrenean. ▶22-23



The Binilos hirukoteak euren proposamena aurkeztu digu, musika eta ikuskizuna ustartuz. ▶15

hiruka

Uribe Kostako astekaria



89. zenbakia

2017ko
martxoaren 16tik
martxoaren 22ra arte

Museoen hilabetea, eskualdean

Getxoko eta Plentziako ondare-baliabide eta museoetan ekitaldiak eta deskontuak egongo dira, martxo osoan. ▶11



«Euskara eta feminismoa eskutik doaz»

Lorea Agirre Dorronsorok feminismoak eta euskalgintzak daukaten harremanaz berba egin digu, antropologoa eta kazetaria da bera. Hilaren 3an berbaldia eskaini zuen, Algortan, Idurre Eskisabelegaz.

Orain dela bizpahiru urte, *Izan zaitzke feminista euskaltzalea izan gabe?* hitzaldia egin zuten, Arrasaten. Horrek izan zuen harrera ikusita, *Euskara eta feminismoa bi-*

daide berbaldia antolatu zuten. Ordukoak utzitako hariei tiraka, Algortan izan ditugu Lorea Agirre eta Idurre Eskisabel; lehenengoagaz luze egin dugu berbetan. ▶16-17

KULTURA PLENTZIA

Autobus barik segituko dute

Bizkaiko Batzar Nagusiek baztertu egin dute Foru Aldundiak bere gain hartu behar izatea Plentziako Isuskitzara doan garraio-publikoa.

Plentziako Isuskitza auzuneko bizilagunek Bizkaibus zerbitzua euren bizilekura hurreratzea eskatu zioten Foru Aldundiari. Eskaera hori eztabaidatu dute Bizkaiko Batzar Nagusiek, eta erabaki dute Foru Aldundiak ez duela bere gain hartu beharrik garraio-publikoa auzune horretara hurbiltzea, Plentziako Udalaren ardura delakoan. ▶9

Emaiozu Bizia! egitasmoa aurten ere egingo du Erandioko Udal Euskara Zerbitzuak, euskararen transmisioa bermatzeko. ▶5

Lemoizko eskola berritzeko proiektua martxan ipini dute. Hala, azpiegitura handituko eta hobetuko dute. ▶8

Gorlizko Sertutxena eraikina zabalik mantenduko dute, beste langile bat kontratatu ostean, hilaren 15ean. ▶9

Sopelako Esaera Zaharren Txapelketa apirilaren 1ean egingo dute; martxoaren 24ra arte izena eman daiteke. ▶11



Andy Hansonen dosia

JON
URRAZA INTXAUSTI
Aktorea

Miren, Gotzon eta etorriko direnak

M eisner-ek, aktore lana instintuetan errotzen zuen. Aktoreek, politikoki zuzen izatea baztertu, ikusleekiko autokontzientzia galdu eta bulkada emozionalei jarraitzea bilatzen zuen. Miren Gaztañagak, besaulkiaren intimitatean, inolako filtro edo kamerarekiko autokontzientziarik gabe, urdailetik bat-batean ateratzen zaiona naturaltasun osoz erantzuten du; transparente izateko talentu horrexegatik hain zuzen ere hartu zuten *El Guardián Invisible* filmean, eta orain, boikotaren beldur, arrazoi beragatik zaldien oinetara bota dute.

Islamaren sinbolo sakratuekin umorea egitea, adierazpen eta sormen askatasunen defentsaren eredu bilakatu zutenek aldiz, Espainiako sinbolo sakratuei buruzko umoreagatik epaitegietara eramán zaitzakete. Adierazpen askatasuna, izatez, konpartitzen ez ditugun adierazpenetan neurtu beharko litzateke, horregatik DefConDos-eko Cesar Strawberry epaituak dio, *Hazte oir*-eko busari libreki ibiltzen uzteko.

8 *Apellidos Vascos* filmean, baskoak xenofoboak eta terroristak biolentoak ginen, zergatik da salagarria ordea, espainolen estereotipoekin umorea egitea? Alfonso Alonso minduta agertu da, euskaldunen sentipenei buruzko saioak bera bezalako baskoen sentipenak ez zituelako islatzen... Japoniarrenak ere ez. Gotzon Sanchez edo *Barrura Begiratze-ko Leihoak*-ekin gertatu bezala, McCarthysmoak sirena jotzean, Lehendakaria, Kontseilaria eta EITB-ko zuzendariak, sortzaileak eta adierazpen askatasuna babesu beharrean, egindako lana *a posteriori* arbuiatu eta barkamena eskatzea da deitoragarriena.

Miren, sormenaz beteriko aktore bikaina zara, zure iritziak hauek edo kontrakoak izan, zure lan on gardenak babesu merezi zuten. ◀

Getxo



Erakusketa Romo Kultur Etxean ikus daiteke, astelehenetik zapatara.

RKE eta Santa Eugenia berrien erakusketa

Proiektu bien nondik norakoak ezagutarazteko eta iritziak jasotzeko erakusketa ikus daiteke apirilaren 12ra arte.

Joan den martitzenean ipini zuten ikusgai Itzubaltzeta/Romoko Santa Eugenia plazaren inguruko erakusketa, berori berritzeko aurreikusita dauden hobekuntzen gainekoa. Romo Kultur Etxean dago erakusketa hori, *Plaza* goiburuagaz. Horren bidez, plazaren proiektua hurreratu gura die

Udalak Getxoko bizilagun denei, horiek eraikinen egitura eta erabilerak zein plaza berriaren aldaketak «hurbiletik» ezagutu ahal izateko. Informazioa emateaz gainera, auzokideek euren interesak eta nahiak erakusteko aukera ere badutela jakinarazi dute udal-arduradunek: «izan ere, hurbiltzen direnek bi dinamika desberdinetan parte hartu ahal izango dute». Lehenengoa, koloretako mapa bat da; horretan, bisitariak beren marka utzi ahal izango dute, Romo Kultur Etxeko guneekeko sortutako interesaren arabera. Bigarrenak, egungo San-

ta Eugenia plaza «barrutik» ikusteko gonbitea egiten du, «bertatik etorkizuneko gustuko plazarekin amets egiteko ere», azaldu dutenez. Erakusketa apirilaren 12ra arte ikusi ahal izango da; epe horretan, piano bat ere egongo da sarreran, gura duenak jo dezan.

Erakusketa martxoaren 14an ipini zuten, eta Aste Santura bitartean egongo da zabalik, ia hilabetez, astelehenetik zapatara. Ordutegiari dagokionez, bisitariak 12:00etatik 14:00etara joan ahal izango dira, goizetan; arrastietan, ostera, 17:00etatik 20:00etara. Sarrera doakoa izango da. ◀

Bilbo Metropolitarraren LZP berriaren gainekoak, ikusgai

Bilbo Metropolitarraren Lurralde Zati Planaren (LZP) erakusketa ibiltaria Getxora heldu da. Lurralde-estrategia berria berrikusteko erakusketak *Lurralde Bizia* goiburua du eta hila-ren 19ra arte egongo da ikusgai, udal-erriko hiru kiroldegietan: Faduran, Gobelan eta Andra Marin, 08:00etatik 21:30era. Hamar urte igaro dira Bilbo Metropolitarraren LZP onetsi zutenetik, 2006an; eta berritzeko beharra du: batetik, azken hamarkadetan gertatu diren aldaketei erantzuteko; bestetik, gaur egungo egoera berrira egokitzeko. Erakusketa publiko horregaz, Foru Aldundiak horren berrikuspenezko prozesua bultzatu gura du, eta herritarrek parte hartu ahal izango dute prozesu horre-



tan. Erakusketaren helburua da plana ezagutaraztea eta herritarrei azaltzea zertan datzan LZParen berrikuspenezko prozesua eta zein kanal izango dituzten eskura lurralde-estrategia berriaren diseinua egiten laguntzeko. ◀

info+: www.hiruka.eus/getxo

Borrokan segituko duela ohartarazi du Erromo plataformak

Erromo Plataforma Imanol Landa Getxoko alkateagaz eta Joseba Arregi Hirigintza zinegotziagaz batu da. Bertan berba egindakoaren ondorioz, auzokideen plataformak adierazi du Gobernu-taldeak «bere horretan» segituko duela, «udal-talde gehien goaren eta auzokideen iritziei kasurik egin gabe». Hori dela eta, Itzubaltzeta/Romoko hirigintza-garapen iraunkorraren aldeko plataformak berretsi egin du mobilizazioak egiten jarraituko duela, Ibar nagusien etxea, kultur etxea eta udal euskaltegia hartzen dituen eraikina bere horretan mantentzeko asmoz. Askotariko babesak bilatzen ahaleginduko direla ohartarazi dute, barbarako Arartekoarena eta Batzar Nagusia. ◀

Getxo

Aurrekontu parte-hartzaileen bigarren faseari ekingo dio Udalak

Proposatutako zortzi proiektuak balioetsi eta bozkatu ahal izango dituzte herritarrek, hilaren 23ra arte.

Orain dela egun batzuk abiatu eta hilaren 23ra arte, aurtengo aurrekontu parte-hartzaileen bigarren fasean murgilduko da Getxoko Udalak. Horretan, aukeran dauden zortzi proiektuak lehenetsi ahal izango dituzte herritarrek. Lehenengo fasean, proposamen denak teknikoki eta ekonomikoki aztertu ostean, zortzi proiektu hautatu zituen Udalak. Orain, bigarren fase honetan, hautatutako horiek puntuatu eta lehenetsi beharko dituzte getxoarrek, euren ustezko garrantziaren arabera.

Proposatutako proiektuak honako hauek dira: Portu Zaharraren eta Genaratxu eta Usategiren arteko lotura-

ren irisgarritasuna hobetzea (700.000 euro); Aioa metro-geralekuko sarbi-dearen segurtasuna hobetzea, Alangoko igogailutik Arkotxa kaleraino (650.000 euro); Zahartze aktiboari lotutako jarduerak egitea (650.000 euro); txakurren gorotzak kontrolatzeko eta kontzientziatzeko jarduerak egitea (100.000 euro); enpresei eta pertsona ekintzaileei laguntzak ematea (50.000 euro); formatu txikiko kontzertuak egitea, udan kanpoaldean, plazetan edo lorategietan (40.000 euro); seinaleak ipintzea Getxon turismoa sustatzeko (40.000 euro); eta beka sortzailea Europako gazteentzat, udalerriraino bizitzera etorri eta Getxo agerlekuat

duen testuak idatz ditzaten (15.000 euro). Amaia Agirre Komunikazio eta Herritarren Partaidetzarako zinegotziak modu oso positiboan balioetsi du herritarrek prozesu honetan izandako jarrera. «Joan den urtarrilean egindako lehenengo fasean», esan du Agirrek, «Getxoko auzokideen 449 galde-tegi jaso ziren. Prozesuagaz bat egiten zuten ekarpenak eta iradokizunak teknikoki eta ekonomikoki aztertu ziren; azkenik, erabaki zen zeintzuk sar zitezkeen 2017ko aurrekontuetan. Zortzi proiektu dira, bideragarriak eta ekonomikoki jasagarriak, auzo ezberdinen arteko oreka erakusten dutenak eta getxotar guztien onurarako izango direnak. Bigarren faseari irtingo dira 2017ko aurrekontu parte-hartzaileen diru-saileko milioi bat euroren kontura egingo direnak».

Cedemosek 12 pertsona kontratatu eta beste 14 trebatu zituen iaz, lan-aurreko tailerretan

Joan den urtean, hiru emakumezko eta bederatzi gizonezko egin zuten lan Cedemos Mugikortasun Iraunkorren Gunean. Modu berean, beste 14 lagunek parte hartu zuten zentro horretan egindako lana lortu aurreko tailerretan. 26 pertsona horietatik 23 Getxon bizi dira. Gizarteratze-enpresen kontratazio-profilen tipologiari dagokionez, 5 lagunek enplegu egonkorra dute, zentroko egiturakoak direlako; 12 lagun Lanbide bideratutako lan-bideratze-prozesuan daude. Enplegu zuzenari eta lan-aurreko tailerretan sortutako lanpostuei dagokionez, 14 pertsonak mugikortasun iraunkorreko lanetan dihardute (bizikletak konpontzen eta mantentze-lanak egiten). Sortutako zeharkako enpleguari alorrean, 12 lagunek behar egin dute bizikleten mailegu automatizatuen jardueran.

Ekitaldi bereizgarrienen bideoak, herriko protagoniztakaz, elkarrizketak...

MEMORIAREN PLAZA

ekimenean jazotakoak bideoan ikusteko:

hiruka.eus

Martxoaren 21etik aurrera

 **hiruka**
Urbe Kostako astekaria

Sartu YouTube-ko
HIRUKAren kanalean:
HIRUKA KOMUNIKAZIO-TALDEA



Getxo



Orain dela lau urte ekin zioten Getxon Zurrumurrueen kontrako Estrategia. © GETXOKO UDALA

Zurrumurrueen kontra, 2013tik

Zurrumurrueen kontrako agenteak prestatzeko saio gehiago antolatuko dituzte, hilaren 20tik apirilaren 5era.

Zurrumurrueen kontrako eragileentzako formakuntza-saioak eskaintzen ditu Getxoko Udalak, urtero. Horietan parte hartu ahal izateko, izena eman daiteke daborduko. Aurtengoa V. edizioa izango da, eta martxoaren 20an hasiko da zikloa. Sei saio eskainiko dituzte, guztira; Areetan dagoen Getxo Elkartegian egingo dira, astelehenetan eta eguaztenetan, apirilaren 5era arte bitartean, 19:00etatik 21:00etara; lehengoan izan ezik, 18:00etan hasiko baita. Horietan parte hartu gura dutenek alde aurretik inskripzioa bete beharko dute, udal webgunean edo Herriarren Arretarako Bulegoren baitan. Hala, parte hartuko dutenek jo-

rratuko dituzten berbaldiak ondoko hauek izango dira: «Zurrumurrueen aurrean geure burua kokatzen», hilaren 20an; «Immigrazioa: estereotipotik xenofobiara», hilaren 22an; «Zurrumurrue, estereotipo negatibo eta aurreiritzi zabalduenak», hilaren 27an; «Genero ikuspegia zurrumurrueen aurkako estrategian», hilaren 29an; «Elkarrizketa eta komunikaziorako tresna praktikoak», apirilaren 3an; eta, «Elkarrizketa eta komunikaziorako tresna praktikoak», apirilaren 5ean.

Zurrumurrueen kontrako Estrategiaren oinarriko elementua da heziketa, eta 2013tik hona horretan dabilta Getxon. Estrategiaren ardatzak dira kultura-artekotasuna eta bazterketaren aurka borrokatzea, aurre egiteko immigrazioaren eta kultura-aniztasunaren inguruan dauden zurrumurruek, aurreiritziek eta estereotipo negatiboek sortzen dituzten ondorioei. ◀

info+: www.getxo.eus / 944 660 000

Berbaldi-zikloa, mendebaldeko musika-tresnak aztertzeko

Martxoaren 17tik apirilaren 7ra bitartean, «Evolución de los instrumentos musicales occidentales» izeneko berbaldi-zikloa eskainiko du Areetako Andrés Isasi Musika Eskolak. Hizlaria José María Bretos Linaza getxoztarra izango da, Musikeneko irakaslea, Euskal Herriko Goi-mailako Musika Ikastegian. Berbaldiak barikuetan izango dira, 18:30ean, eta sarreraren prezioa 3 eurokoa izango da. Berbaldi-ziklo hori adin guztietako publikoari zuzenduta dago, eta horren helburua da modu ulerterrazean azaltzea zelan sortu ziren Europan musika-tresnak. Ziklo horregaz



info+: www.getxo.eus.

osatuko dituzte aurretik egindako beste biak: «Los instrumentos musicales en el arte» (2014ko azaroan) eta «Los instrumentos musicales de oriente y occidente» (2016ko martxoan). ◀

Udan ume sahararrak hartzeko izen-ematea zabaldu dute

Ume sahararrak udan gurera ekartzeko eta etxean hartzeko izena ema ahal izango da apirilaren 15era arte. Izan ere, Tindouf-eko (Aljeria) errefuxiatuen kanpamentuetan bizi behar duten umeak ekarriko ditu gurera Atfalek, Sahararen aldeko elkarre getxoztarrak, aurtengo udako uztailan eta abuztuan. Hala, 10 eta 12 urte arteko neska-mutiletako bat etxean hartzeko, izen-epea zabaldu du Getxo-

ko Udalak. Hala, ekimen horretan parte hartu gura dutenak, hau da, udalerriko familiak zein Getxon lan egiten duten lagunak aipatutako elkarteagaz edo Udalgaz harremanetan ipini daitezke, apirilaren 15a baino lehenago. Umeei mediku-azterketa eta elikagai egokiak eskaintzeaz gainera, neska-mutil sahararren errealitatea ezagutzeko aukera ematen zaie familia getxoztarrei. ◀

izena emateko: atfalgetxo@gmail.com



Bisitak euskaraz edo gaztelaniaz egin ahal izango dira; martitzenetik domekara.

Begoñako galeriak bisitatzeko izen-ematearen epea, zabalik

Begoñako galeriak ezagutzeko beharrezkoa da aurretik izena ematea; horretarako epea zabaldu dute daborduko. Galeriak apirilaren 1etik uztailaren 30era bisitatu ahal izango dira. Aurrekoetan legez, izen-ematea egin ahal izango da udalaren webgunean edo Turismo Bulegoaren telefono-zenbakira deituta. Interesdunek aurrez aurre ezagutu ahal izango dituzte egindako aurrerapausoak; izan ere, 2017ko bisitetan eredu berri bat eskainiko dute: ibilaldi gidatuari era-

kusketak gehituko dizkiete hilabetero, proiektuaren garapena azaltzeko. Helburua da EHUren ikerketak erakustea, elementu dinamiko eta dibulgatzaileen bitartez. Hilabetero aldatuko dituzte eta, horiei esker ezagutarazi ahal izango dira unibertsitatearen lanen emaitzak, modu bisualagoan eta erakarriagoan. Abuztuan, galerietarako sarrera doakoa izango da 12:00etatik 14:30era eta 18:00etatik 20:00etara, baina ez dute bisita gidaturik eskainiko. ◀

info+: www.getxo.eus / 944 910 800



Barrura begira

BEIA SEVER EGAÑA
Chrysallis EHko kidea

Gorrotoa autobusez; gizartea zutik

Gure seme-alaben bizitza ahalik eta zoriontsuena izan dadin ari gara lanean Chrysallis elkartean. Ez gara inoren kontra ari; gure umeen alde ari gara. Haur hauen izatea bera ukatzen duen autobusa dela eta, guk ez dugu liskarrik nahi. Ezjakintasunaren aurrean, ezagutza: gorrotoaren aurrean, maitasuna. Horiexek dira gure lan-tresnak. Autobusa gelditzea baino gehiago, lorpenik handiena da gizarte osoak aho batez adierazi duela neska eta mutil hauekiko onarpena, errespetua eta zaintzearen konpromisoa. Ezeren gaintik beraien ongizatea dagoelako, beraien bizitza. Mila esker, zuen babesagatik. Mila esker, gu besarkatzeagatik. ◀

Erandoio

Emaiozu Bizia! ekimena aurton ere egingo du Euskara Zerbitzuak

Gurasoek hizkuntza-transmisioa bere egin dezaten bilatzen du.

Erandioko Udalaren Euskara Zerbitzuak Emaiozu Bizia! egitasmoa garatzen jarraituko du aurten ere, Osakidetzagaz elkarlanean.

Osakidetzak herrian eskaintzen dituen erditzea prestatzeko ikastarotan berbaldiak antolatu ditu Erandioko Euskara Zerbitzuak, urtebetean. Iaz harrera ona izan zuen ekimenak, arduradunen arabera. Erandion jaio zen egitasmo hori zabaltzen joan da, astiro-astiro, Getxora, Sopelara, Urdulizera eta Bizkaiko beste hainbat herritara.

Berbaldien helburua da gurasoak konturaraztea hizkuntza-transmisioaren garrantziaz, eta hizkuntza-ohituraren gaineko hausnarketa bultzatzea,



Umeak berba bat ikasten du astean; 18 hilabetetatik 24 bete artean. © ERANDIOKO EUSKARA ZERBITZUA

erditu aurretik. Horretarako, liburuxka bat banatzen dute berbaldietan, edo emaginaren kontsultan laster guraso izango direnei; horiengan haus-

narketa eragiteko hainbat datu eta informazio helarazten die liburuxkak. Horregaz batera, hainbat adibide ematen dituen bideoa ere ikus daiteke. ◀

Korrikari ondoetorria egingo diote euskaltzaleek Erandiogoikoan

Datorren barikuan, martxoaren 17an, Erandiogoikoko auzokideek harrera egingo diote euskararen lasterketari. Arrasti osoan, zenbait jarduera izango dira Euskadi plazan antolatuko duten Korrika-festan. Hala, 18:00etan, umeentzako eta gazteen-tzako tailerrak egingo dituzte. Ostean, 19:30ean, dantza-erakustaldia egingo du Goi-Alde taldeak. Musikak ere bere tarte izango du, 20:00etatik aurrera ekitaldi-musikatua egingo dute eta. Eguneko azkenengo ekitaldia herri-faria izango da, Dandaka jatetxean. Arrasti osoan, Korrika-denda zabalik egingo da plazan. Erandioko lehenengo auzoa izango da Erandiogoikoa Korrikari ondoetorria egiten, baina ez da bakarrik izango: hainbat ekitaldi antolatuko dituzte Altzagan hilaren 24an, 25ean eta 31n; eta Korrika-festa egingo dute Astrabudian, apirilaren 1ean. ◀

Eguenean zabalduko dute izen ematea, Udal Musika Eskolan

Erandioko Udal Musika Eskolak matrikulazio-epaia zabalduko du eguen honetan, martxoaren 16an. Eskolako kideek hobeen egiten dutena erakutsiz hasiko dituzte eskolaren jarduerak, hau da, musika-emanaldia eskainiz. Hala, musika-eskolan irakasten dituzten 12 instrumentuen gaineko kontzertu-erakustaldiak entzun ahal izango dira, eguen honetan bertan, arrastiko 06:30etik aurrera, As-

trabuduko Josu Murueta kultur etxeko areto nagusian. Kontzertua udalerriko 4 eta 6 urte bitarteko neska-mutilei eta euren gurasoei zuzenduta egongo da. Gaur egun hastapeneko mailetan dauden musika-ikasleek kanta «ezagunak eta oso dibertigarriak» joko dituzte, oholtzaren gainetik, Erandioko Udal Musika Eskolako iturriek aurreratu dutenez. ◀

info+: smeskola@erandio.eus / 944 170 453



Eskolako musika-gelak daude Josu Muruetan eta Bekoa ikastetxean. © ERANDIOKO UDALA

Udalak Auzoz Auzo egitasmoa indartuko du datozen asteotan

Ixaso Martiarena Auzoetarako zinegotzia plazara irten da, Erandio Auzoz Auzo egitasmoa dinamizatzen. Datorren martitzenean, hilaren 21ean, udaletxean batuko ditu auzotarrak eta elkarteak, goizeko 10:30etik 12:00etara. Martxoaren 27an, ostera, Erandiogoikoko Gizarte Etxean izango da bilera, 19:30etik 20:30era. Modu berean, ekimenaren postontziak ipiniko dituzte Enekurin, Asuan, Goierrin, Erandiogoikoan, Arriagan eta Kukularran. Martiarenak gogorarazi duenez, hainbat urte pasa dira sail hori sortu zenetik. Denbora horretan, «topaketa lasaia» izan dituzte aldizka, «bilera formalen protokolo barik», auzotarra-



Erandiogoikoan izango da ekimena, 27an.

kaz «harreman zuzen eta hurbila sustatzeko». Herritarren partaidetza «are gehiago indartu» gura dute orain, «edozein gunetan sor daitezkeen» beharretatik hurbilago egoteko. ◀

info+: auzoak@erandio.eus / 688 805 861

Lutxanako geralekua mantentzea gura du Loiuko Udalak ere

Loiuko Udalbatzak aho batez onartu ldu Euskotreni eskatzea Lutxana eta Sondika arteko linearen bideragarritasun-plana egin dezan, zerbitzua zabalik mantentzeko helburuagaz. Erandioko Udalbatzak eskaera bera egin zuen aurretik. Josu Andoni Begoña Loiuko alkateak azaldu duenez, 2015eko ekainaren 1etik hona, Euskotrenek eman duen zerbitzu hori «oso ondo baloratzen dugu». Bere ustez, «Lutxana eta Txorierriko auzoen arteko lotura azkarragoa lortu du». Gaur egun, Lutxanako Euskotrenen geralekua ixtea da Euskotrenen eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren asmoa, Zazpi Kaleetako geltokiko lanak amaitzean. ◀

Parkingen arazoa berbabide, eguenean, Astrabudian

Martxoaren 16an batuko da auzo-asanblada Astrabuduko Josu Murueta kultur etxeko gela urdinean, 20:00etan, auzoan aparkatzeko dagoen arazoiari «behin betiko konponbidea» emateko asmoz. Parkingari Konponbidea Orain! auzo-plataformak antolatu du ekimena, eta iragarri duenez Erandioko Udaleko zinegotziak gonbidatu ditu batzarrera, «euren iritzia ezagutzeko». Joan den urtean, egoera salatzeko manifestazio bat egin zuten 300 bat auzokideek; modu berean, Erandioko Udalak lantalde bat osatu zuen konponbideak bilatzeko. Zenbait erabaki hartuta, 500 bat leku egokitu zituzten, metroaren ondoan, batez ere. ◀

Leioa

Zainduz programan, hainbat berrikuntza

Zainduz egitasmoan 45.000 euro inbertituko ditu Leioako Udalak aurton. Programa horri esker, mendekotasuna duten adinekoen eta haien senideen edo jagoleen bizitzakalitatea hobetzen ahalegintzen dira. Horrez gainera, zaintza horiek ingurune afektibo ezagun eta hurbil batean ematea ahalbidetzen da. Udal-iturriek emandako datuen arabera, ia 276 leioaztarrek jaso zituzten gertuko jagoletza-ekintzak, prestazioak eta zerbitzuak; aurton, daborduko, 68 herritarrek izena eman dute. Berrikuntzen artean, adinekoek ibilaldi osasungarriak egitea aukeran egongo da, eguaztenero, Tipi-tapa ekimenaren bidez. Goizeko 10:00etan emango dituzte paseoak. Halaber, gaixoen osasunak okerrera egitea atzeratzeko, estimulazio psikologikoa landuko dute, Errekaldeko nagusien etxean,

martitzenetan eta eguenetan; zerbitzu hori etxean ere jasotzea aukeran egongo da. Bestalde, jagoleek dauzkaten zalantzak argitu ahal izango dituzte eguaztenetan, Gizarte Zerbitzuen egoitzan; horregaz batera, hainbat ikastaro antolatu dituzte eurentzat beren-beregi. Berbarako, emozioak zelan kudeatu ikasten dabilta zaintzaileak martxoan; ostera, urrian, antsietatea kudeatzen erakutsiko diete. Azkenik, azaroan, dolua zelan bizi landuko dute. Laguntza psikologikoa ere ematen die Udalak jagoleei. Horrez gainera, bizi izandako esperientziak elkarri kontatu ahal izango dizkiete zaintzaileek, bi asterik behin.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailagaz izenpetutako hitzarmenari esker martxan dauka Zainduz egitasmoa Leioako Udalak. ◀

info+: gizartezerbitzuak@leioa.net / 944 801 336

Hobekuntza-lanak egiten dabilta Aldapabarrena kalean

Zuhaitzak moztuz hasi zituzten Aldapabarrena kaleko hobekuntza-lanak, martxoaren 6an. Udal-iturriek diotenez, saneamendu-sarea eta errepeidea kaltetu ei dituzte sustraiek. Besteak beste, errepidearen zabalera txikiagotuko dute; oinezkoak, umeen kotxetxoak eta gurpildun aulkian doazen lagunak espaloitik erosoago ibiltzea lortu gura dute. Horrez gainera, oinezkoentzako pasabide goratuak ipiniko dituzte, ibilgailuen abiadura moteltzeko. Lanen aurrekontua 166.254 eurokoa da. Obrak egiten diren bitartean (hiru hilabete), beheko norabidean dagoen ezkerreko espaloia mugatuta egongo da oinezkoentzat. ◀

Holiday zirkuari baimena ukatu dio Leioako Udalak

Xabier Olabarrieta Leioako PPren bozeramaileak Holiday zirkuari udalerriraino etortzeko «baimena eman ez izana» egotzi zien udal agintariei, azken osoko bilkuran. Mari Carmen Urbietak alkateak erantzun zionez, Ikaztegiko parkinga erabili gura zuten; «udalerririko merkatariak beti agertu dira leku hori erabiltzearen kontra, udalerrira lan egitera datozen lagun askok kotxea bertan uzten dutelako», azaldu zuen agintari leioztarrak. Ostera, oraingo honetan inork ez diela galdetu esan du Leioako Merkatarien Elkarteak, ohar baten bidez. Martxoaren 17tik 19ra arte, Sopelako Arriatera hondartzako apartakelkuan egongo da Holiday zirkuari. ◀



Leioako Udalak 1.385.130 euro inbertitu ditu azken hiru urteetan, kirol-instalazioak hobetzeko.

Sakoneta kiroldegian konponketa ugari

Gutxienez 5.500 dira erabiltzaileek aurkeztutako kexuengatik abiatu dituzten espedienteak.

Leioako kirol-instalazioak «eten-gabe» hobetzen jarraitzen du Udalak, bertoko arduradunek eguaztenean egindako prentsa-aurrekoan adierazi zuten bezala. Hala ere, Sakoneta kiroldegia izan da konponketa gehien behar izan dituen azpiegitura, Mari Carmen Urbietak alkateak eta Estibaliz Bilbao Kirol zinegotziak aitortu zuten bezala. Eman zituzten datuen arabera, azken hiru urteotan, 1.385.130 euro inbertitu ditu Udalak, kiroldegi horretan. Urbietaren berbetan, «erabiltzaile asko dauzkanez eta eraikina bera zaharra denez, eten barik, inbertsioak egin behar izaten ditugu; azpiegitura egoera egokienean egotea eta kalitatezko zerbitzuak eskaintzea direlako gure helburuak». Hala ere, ehunka

dira kirol-instalazioek dauzkaten ga-bezietz kexatu diren kirolzaleak; horren gainera informazioa «ukatu» izana egotzi zien udal agintariei Leioako EH Bilduk, azkenengo osoko bilkuran.

Estibaliz Bilbao Kirol zinegotziak berak aitortu zuen udal-batzarrean, horren inguruko datuak ez zizkietela eman koalizioako ordezkariari. Udal Arautegi Organikoaren 108. artikuluan oinarritu ziren agintari leioztarrak, erabaki hori hartzeko; izan ere, «udal-azpiegitura baten jarduna ezin da gelditu informazio-eskaera baten gogorarazi zenez. Bestalde, kirol-arduradunaren arabera, gutxienez 5.500 dira Sakonetako erabiltzaileek aurkeztutako kexuengatik hasiera eman dieten espedienteak. «Gauza da horietako bakoitza kexa aurkeztu duen bazkidearen fitxagaz batera gordeta dagoela; banan-banan begiratu beharko liriteke bazkide-tza-orri denak», argudiatu zuen Bilbaok. ◀

Korrika aurkezteko hainbat ekitaldi egongo dira egunotan

Martxoaren 30ean Otxandiotik abiatu eta apirilaren 9an Iruñean amaituko da Korrikaren 20. edizioa. Leioari dagokionez, apirilaren 6ko goizaldean zeharkatuko du udalerrira; 03:25ak inguruan Itzubaltzeta/Romotik helduko dela aurreikusita dago. Kontuak hala, euskararen aldeko lasterketari behar bezalako harrera egiteko, daborduko hainbat ekitaldi antolatu ditu Leioako herri-batzordeak.

Besteak beste, Korrikaren aurkezpena egingo dute, Txomin Aresti ikaste-txean, bariku honetan, hilaren 17an. Hitzordua 19:00etan ipini dute. Martxoaren 22an, ostera, DBHko ikasleei kontatuko dizkiete aurtengo lasterketaren xehetasunak eta udalerrian egingo diren ekitaldiak, Kultur Leioako entzungelan, 14:30ean; *Gu ta gutarrak* ETB1eko saioko lagunak parte hartuko dute ekitaldian. ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz



BETIKO
IKASTOLA

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduerak ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net



ikastolenelkartea

Sopela

Urko futbol-zelaia, prest

Ingurumen-hobekuntza proiektua amaitzeko, berbaldia egingo dute, zapatu honetan, martxoaren 18an.

Daborduko, dena prest dago Larrabasterrako Urko kiroldegiko belar artifizialeko zelaiaren baloia biraka has-teko. Sopelako Udalak nabarmendu duenez, bertan egin diren «hobekuntza-lanek kirol-zelaiaren zorua zaharberritzea» izan dute ardatz. Hala, «orain arteko zelai sintetikoak azken belaunaldiko FIFA Quality Pro homologazio-kalitatea duen batengatik ordezkatu» dute. Modu berean, zelaia ordezkatzearaz gainera, atea eta hesien sareak ere berrizatu dituzte. Denetara, 150.000 bat euro inbertitu ditu Sopelako Udalak behar horietan.

Halere, Urkoko lanek zenbait ikamika ekarri dituzte. Berbarako, Ugeraga kirol-elkarteko lehenengo taldeko entrenatzaileak, Omar Alonsok, bere haserrea agertu zuen obrak amaitu baino lehen. Alonsok kritikatu zuen Udalak agindu ziela lanak amaituta egongo zirela denboraldia hasi aurre-



Ugeragako eta Athleticceko beteranoen arteko partida jokatu zuten 2015eko abenduan. © ATHLETIC

tik, baina abuztuaren 15ean hasi zirenean konturatu ziren ez zela horrela izango: «okerrena da, gainera, belar naturaleko zelaia erabat txikituta eta utzita topatu genuela». Hala, enpresa bat kontratatu behar izan zuten zelai hori egokitzeko. Ondoren, lanak abenduan hasi zirenean, kritikatu zituzten klubeko partidak baldintzatzeagatik eta belar artifizialerako eguraldi desegokia aukeratu izateagatik.

EH Bildu koalizioak, ostera, salatu du Urkokoa «lardaskeria» dela. Gainera, ezkerreko alderdiak gogorarazi

du 2017rako aurrekonturako gutxieneko hitzarmenean, horren inguruko klausula sartu zutela, Urkoko azpiegitura-lanak kirol-taldeakaz hitzar zitzaten. Azkenik, oroitarazi dute EAJK eta PSE-EEK futbol-zelaia atontzearen aurka bozkatu zutela 2015ean: «beldarra 2015eko udatik egon zitekeen zaharberrituta».

Kontuak hala, Urkoko futbol-zelai artifiziala 2001ean instalatu eta, 2010ean hainbat moldaketa egin ziren. Belar artifiziala ez da orain arte aldatu, 16 urteko biziaren ostean. ◀

Oporrak Bakean kanpaina izena eman daiteke

Nuyum elkarteak sopeloztarrei dei egin die Oporrak Bakean elkar-tasun-programagaz bat egin eta ume sahararren bat etxean hartzeko, udako bi hilabeteetan. Izan ere, data horiek dira gogorrenak, Aljeriako basamortuan bizi diren umeentzat, tenperatura 50 gradutik gorakoa baita. Bertako errefuxiatu-eremuetan 200.000 bat errefuxiatu bizi dira baldintza latzetan; gehiengoa neska-mutilak, emakumeak eta adin nagusiko pertsonak dira. Nuyumek gogorarazi duenez Marokok 1976tik okupatzen du Sahara. ◀

info+: 695 788 185

Hainbat ekitaldi egingo ditu Itzartuk, egun hauetan

Itzartu emakumeen elkarteak pare bat ekimen egingo ditu datozen egunotan. Martxoaren 16an, eguena, *Carol* filma eskainiko du Genero Ikuspegiko Zinema zikloaren barruan. Emanaldia Itzarturen lokalean izango da, 18:00etan. Filma 1950eko hamarkadako New York hirian dago girotuta. Therese da Manhattan auzoko denda bateko saltzailea; andrak amets egiten du han bizimodu hobe bat izateagaz. Halako batean, Carol ezagutuko du, emakume dotore eta diruduna, senarraz batere zorionsua ez dena. Bestalde, datorren egunean, hilaren 23an, *La sororidad, la alianza entre mujeres* berbaldia eskainiko du Itziar Gandarias psikologoak. Hitzordu hori ere Itzarturen lokalean izango da, 18:00etan. ◀

Argiteriaz arduratzen den enpresari isuna ipiniko dio Udalak

Sopelako Udalak zigorren bat ezarriko dio lapurren aurkako argiteriakablea instalatu duen enpresari. Hala adierazi zuen pasa den Udaltzaren Gontzal Herrosilla alkateak, enpresari zenbait «akats» eta «atzerapen» egotziz. Udaltzaren aho batez babestu zuen Udaltzaren ekimena, baina alderdiak ez ziren ados ipini zigorra zein izango zen erabakitzerakoan. Oraingoan, Udaltzaren atzeratuko du enpresari egindako zerbitzuengatik bidalitako azken fakturaren ordainketa, dagokion zigorra zehaztu arte. Faktura hori, 44.512 eurokoa, zigor-espeditantean sartuko dute. EH Bilduren arabera, zigorra kontratua aurreikusitakoa izan beharko litzateke. ◀

Jaietarako kartelak eta musika-taldeak aurkez daitezke

Sopelako Jai Batzordea beharrezkoak dabil udako jaiak antolatzen, «denon arteko eta denon gustuko jaiak izan ditzagun», azaldu dutenez. Hala, jaietako kartelak aukeratzeko lehiaketa eta musika-talde lokalek izena emateko epea zabalik dute daborduko. Alde batetik, maiatzaren 7an egingo dute lehiaketa, udalerriko hiru jai nagusiak iragartzeko kartelak aukeratzeko, proposamenak entregatzeko azken egunean. Lehiaketan gura duen edonork parte hartu ahal izango du banaka edo taldeka; egile bakoitzeko lan bakarra onartuko da. Maila bi egongo dira: maila nagusia eta ume eta gazte maila; bietan sariak emango dira. Bestalde, jai-batzordeak talde lokalei jotzeko aukera eskainiko die. Horretarako inskripzio-epea apirilaren 23an amaituko da. Parte hartu ahal izateko taldeko kontaktu-bideak eta biografia eman eta partaideetako bat, gutxienez, Sopelan errolatuta egon beharko da. ◀

info+: 944 065 505 / kultura@sopela.eus.

Jendarte-laguntzen gainean eztabaidatu du Udaltzaren

Sopelako Udalak eskatuko dio Eusko Jaurlaritzari Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) %8 igotzea, Lanbidearte Gutxieneko Soldatarien (LGS) hazkundeari lotuta. Hala erabaki zuen Udaltzaren oposizio denek baiezkoa emanda eta EAJ eta PSE-EEren abstentzioagaz. Bestalde, Udaltzaren uko egin zion Ur Par-

tzuergoari zenbait neurri har dezan eskatzei; Orain Sopelak eta EH Bilduk proposatu zuten bizitzeko gutxieneko ur-hornikuntza eta hobari sozialak aplikatzeko. Mozioak aurkezle eta talde bako zinegotziaren babesa izan zuten, Udaltzaren ezetz bozkatu zuten eta Denok Batak abstentzioa eman zuten puntu horretan. ◀



Gatzarriñe bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 - 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus · www.anderdeunakastola.eus

Berango

Doako ekitaldi bi egongo dira egunotan Berango Antzokian

Ohi legez, ekitaldiz gainezka dago hilabete honetan ere Berango Antzokia. Egitarauaren erdia igaro den arren, oraindino badago zertaz gozatu bertan; hala, besteak beste nagusientzako antzerki eta umeentzako animazio-pelikula banaz disfrutatu ahaliko da egunotan. Lehenengoa zapatuan izango da, martxoaren 18an, 19:00etan. Bertan, *Confesiones de 7 mujeres pecando solas* antzezlan egongo da, Luna Llena antzerki-taldearen eskumenez. Hurrengo egunean, domekan, berriz, umeentzako hitzordua izango da, *Elurretako erregina* izeneko filmagaz, 18:00etan. ◀

Mertxe Olagueren oroimenezko plaka ipini dute Berangon

Emakumeen Elkarteak Mertxe Olague omendu du. Olague elkarte horretako sortzailea eta presidentea izan zen, 2006an zendu zen arte. Halaber, Berangoko Udaleko lehenengo emakume zinegotzia izan zen. Hala, bere ibilbide osoa omentzeko guran, joan den Emakumeen Nazioarteko Egunean bere oroimenezko plaka ipini zuten elkartearen egoitzaren sarreran. ◀

Gazteen iritziak batzeko

Bizkaiko Foru Aldundiak eskualdeko neska-mutilen iritziak batu gura ditu; horretarako jardunaldia antolatu du Berangon.

Berango «gazteago» sortzeko guran, Gazte Mahaia Berango taldea osatu zuten udalerriko hainbat neska-mutil gaztek. Udalagaz elkarlanean, joan den urtean ekin zioten bide horri, eta daborduko hainbat jardura antolatu dira helburu hori lortzeko asmoz. Udalerrian bertan, Ubao bideko 29 zenbakian dagoen Stay and Job eraikina askotan baliatu dute ekimenak egiteko. Horretan, Berangoko eta inguruko hainbat gazte bizi dira, eta askotariko proiektuak garatzeko lekua eskaintzen du eraikinak. Hori aprobetxatuta, Bizkaiko Foru Aldundiak ekimen berezia egingo du bertan zapatu honetan, hilaren 18an.

Azaldu dutenez, Uribe Kostako gazteen beharizanek zeintzuk diren jakin gura du Aldundiak. Horretarako, zapatu honetako jardunaldia antolatu du, horren inguruan gazteak zuzenean berba egiteko. Goizeko 10:00etan



Jardunaldia zapatu honetan izango da, hilaren 18an, Berangoko Stay and Job egoitzan.

ipini dute hitzordua, eta azaldu dutenez, eguerdiko 13:00ak arte iraungo du ekimenak. Stay and Job egoitzako kideek jardunaldi horretan parte hartzeko deia egin die eskualdeko neska-mutil gazte denei: «4 pertsona gazte edo lotzen bazarete herri bakoitzeko, primeran! Gure etxeok ere nahikotxo egongo gara, hortaz familian egongo gara». Uribe Kostako gazteen iritziak jaso ahal izateko, *Lego Serious Play* mekanismoa erabiliko dutela ja-

kinarazi dute ekimenaren antolatzaileek. Metodologia horregaz pentsamendu sortzailea sustatu gura dute. Lego jokoa erabilia, parte-hartzaileek egitura eta figurak osatu ahal izango dituzte, besteak beste.

Egitasmo horretan parte hartu gura duten eskualdeko neska-mutil denek aldeztatik eman beharko dute izena, zapatua baino lehen, email bidez mezua bidalita. ◀

izen-ematea: gaztedi@bizkaia.eus

Lemoiz

Lemoizko eskola berritzeko proiektua martxan ipiniko dute

Azpiegitura hobetuko eta handituko badute ere, proiektua ez dela nahikoa uste du eskolako zuzendariak.

Eusko Jaurlaritzak Lemoizko eskola hobetzeko proiektua ipini du martxan, Udalagaz eta eskolagaz elkarlanean. Hala, proiektu horregaz, eskola handitu eta estalitako patio bat egingo dute, baita instalazioak hobetu ere. Halere, proiektuak hainbat hobekuntza ekarriko dituen arren, Natxo Hormaetxea eskolako zuzendariak uste du ez dela nahikoa. Udalak arau subsidiarioetan moldaketak onartu zituen, patio berria lurzoru eraikigarrian egin ahal izateko. Hormaetxeak azaldu duenez, eskolak 90 ikasle ditu, eta klaseak txiki geratzen



Orain dela 14 urte ipini zuten martxan eskola.

zaizkie, «leku gehiago behar da». Gaur egun, eskolak hiru eraikin ditu: nagusia, apaizaren etxe-zaharra eta beste bat jantokia dena. Oraindino ez dute zehaztu noiz hasiko diren bertako lanak, proiektua ez delako lehiaketara

atera. Halere, jakinarazi dutenez, lan horien ondoren honako hauek izango ditu: jantoki berria, erabilera anitzeko gela, apaizaren etxe-zaharra handituko da gela gehiago izateko eta patioa estaliko dute. ◀

Gizarte-larrialdiko laguntzak eska daitezke daborduko, ekainaren 16ra arte

Krisi ekonomikoa gairatzeko tartea dago oraindino; hori dela eta, Lemoizko Udalak larrialdi egoeran dauden auzokideak laguntzeko diru-laguntzak emango ditu aurten ere. Horiek denak gastu espezifikoetara aurre egiteko laguntzak dira. Gastu horiek honako hauek dira: oinarritzako premien gastuak; ohiko etxebizitza edo bizilekua baliatu eta mantentzeko gastuak; etxebizitza edo bizitokia erostearen ondorioz hartutako maileguren interesek eta amortizazioak eragindako gastuak; eta «linea zuriko» etxe-tresna elektrikoaren eta altzarien gastuak. Hilaren hasieran zabaldu zuten laguntzok eskatzeko epea; halere, datorren ekainaren 16ra arte eskatu ahal izango dira. Eskabidea egiteko, interesdunek Gizarte Zerbitzuen bulegoetara jo beharko dute. Horretarako, aldeztatik hartu dezakete hitzordua. ◀

Gorliz

Beste langile bat kontratatu ostean, Sertutxena zabalik egongo da

Sertutxena eraikinak atek itxi behar izan zituen hilaren hasieran. Jose Antonio Martínez Kultura zinegotziak jakinarazi duenez, bertan Turismo Bulegoa eta kulturaren egoitza dago. «Jendeari arreta eta irekiera eta itxiera lanak Turismoko langileek egiten dituzte», azaldu du zinegotziak. Udalak, beste Administrazio Publikoak bezala, Espainiar Gobernuak agintzen dituen kontratazio arauak bete behar ditu, eta «horiek argi mugatzen dute Enplegu Publikoaren Eskaintzaren bitartez ezin dela kon-

traturik egin». Orain dela gutxira arte egoera hori sei hilabeteko kontratuen bitartez konpontzen zutela jakinarazi du Martínezek, «baina, Europar Justizia Epaitegiak erabaki zuen behin betiko diren lanpostuak ezin direla behin-behineko kontratuekin bete». Hori dela eta, kontratu horiek bukatzen joan ahala ezin izan dituzte langile horiek ordezkatu. Sertutxenaren kasuan, urtariletik turismo-teknikariak baino ez zuten bertan lan egiten. Hilaren 5ean, horrek jendaurreko arreta ezin zuenez egin, eraikina goizetan ixtea erabaki



Eraikina itxi behar izan zuten hilaren hasieran.

zuten. Halere, hilaren 15ean Turismo Bulegoan udarako pertsona bat kontratatu zuten; hala, «langile honen lan-ordutegian, Sertutxena irekita egongo da», azaldu du Martínezek. ◀

Indaba-txapelketa egingo dute zapatuan, Iberrebarri plazan

Urteroko ohiturari jarraituz, Gorlizko Merkataria Elkartek (GOSKOA) indaba-txapelketa antolatu du martxoaren 18rako, zapatarako. Aurten goa zazpigarren edizioa izango da, eta hitzordua eguerdiko 12:00etan ipini dute, Iberrebarri plazan. Horretan parte hartu ahal izateko, interesdunek alde aurretik eman beharko dute izena, 5 euroren truke. Antolatzailak jakinarazi dutenez, aurten ezin izango dira inguruko aterpeak erabili; horren ordez, Udalak karpa bat ipiniko du. Indabak tradiziozko moduan egin beharko dituzte eta lapikoak eguerdiko 13:30ean aurkeztu. ◀

Plentzia



Autobus-geraleku bat auzunean ipintzea eskatu dute Isuskitzako auzokideek.

Autobusik gabe jarraituko dute

Batzar Nagusiek

baztertu egin dute

Aldundiak bere gain hartu behar izatea Isuskitzarako garraio-publikoa.

Isuskitza auzuneko bizilagunek Bizkaibus zerbitzua euren bizilekura hurreratzea eskatu zioten Foru Aldundiari. Eskaera hori eztabaidatu dute Batzar Nagusiek eta erabaki dute Aldundiak ez dela bere gain hartu behar garraio-publikoa auzune horretara hurreratzea. Hala, egindako bi proposamen baztertu dituzte; bata PPK aurkeztutakoa eta bestea EH Bilduk eta Podemosek batera aurkeztutakoa; horietan, Isuskitza auzunea Plentziako erdigunegaz lotzea ahalbidetuko zukeen neurriak hartzea eskatzen zuten. Vicente

Reyes Garraioa, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko foru diputatuak azaldu du hiru alternatiba ikertu dituztela: Leioa-Mungia edo Gorliz-Plentzia autobus-lineetan geraleku bat ipintzea Isuskitzan, biak baztertu dituzte «ekonomikoki bideragarriak ez direlako»; eta geraleku bat ipintzea «Dos Palmeras» inguruko bigurutzean, hori ere baztertu dute, teknikoki «bideraezina» delako.

EAJK eta PSE-EEK aitortu dute «komunikazio falta» baten arazoa dagoela auzune horretan. Hala ere, gaineratu dute soluzioa Udalak berak eman behar duela, «zer esango dute euren garraio-zerbitzuak ordaintzen dituzten udalerrietako auzokideek», galdegin du Ekain Rico sozialistak. Izan ere, azaldu dutenez, udalek eurek hartu behar dute euren gain zerbitzu hori, «urbano» izaera duelako. ◀

Kandela Egunaren bosgarren ediziorako dena prest dago

Aste-akabu honetan, zapatuan eta domekan, euskal preso eta iheslari politikoak etxeratzearen aldeko jaialdia egingo dute Plentzian: Kandela Eguna. Aurten goa bosgarren edizioa izango da, eta bi eguneko egitaraua antolatu du Kandalaria kultur elkarteak. Zapatuan, hilaren 18an, emango diote hasiera jaialdiari, Or Kresta elektrotxaranga-gaz. 19:00etan abiatuko dira, Plazatxoatik, ondoren, 22:30ean Danontzat gaztetxean izango diren kontzertuei lekukoa emateko. Bertan, hainbat taldek ipiniko diote doinua gauari: Busker Juice, Euskatalites eta DJ Naparrak. Hurrengo egunean, gazte zein nagusientzako egitarau zabala antolatu dute, Jai Alai frontoian. Eguerdiko 11:15ean ekingo diote festari, umeentzako puzgarriakaz. Ondoren, Sorgina Txirulinak ipuinak kontatuko dizkie neska-mutil gaztetxoenei, musikaz

Egitaraua

Martxoak 18, zapatua

19:00 Elektrotxaranga Or Kresta taldeagaz, Plazatxoatik abiatuta.

22:30 Kontzertua: Busker Juice, Euskatalites eta DJ Naparra. Danontzat gaztetxean.

Martxoak 19, domeka

11:15 Puzgarriak, Jai Alai frontoian.

13:00 Sorgina Txirulina ipuin-kontalaria, Jai Alai frontoian.

14:30 Herri-bazkaria, Jai Alai frontoian.

17:30 Kontzertua Cloverwind taldeagaz, Jai Alai frontoian.

alaituta. 14:30ean, berriz, bazkarirako ordua izango da, 15 euroren truke; barazkijaleentzako menua ere egongo da. Azkenik, V. Kandela Egunari amaiera emateko, Cloverwind taldeak dantzan ipiniko ditu bertaratutako gizon-emakume denak. ◀



Arkatza belarian

UNAI ETXEBARRIA BEITIA
Arkitektoa

Hogei bat metro eskas

Hogei bat metro eskaseko txokoan bizi naiz, nire herriko zubi zuriaren itzalpean. Eskasak, baina baditu sukaldia, egongela, logela eta komuna. Denak batera, *loft* estiloan. Zuriz margoturiko altzairuzko habeak ditu, eta airezko horma gardenak. Hiru itsasadarrera begira. Badu algarren bat ere. Karramarroak eta txirlak noizbehinka. Sastegia askorentzat; habia, niretzat. Balio dit babesteko, ezkutatzeko, alde egin eta bueltatzeko, egoteko, bizitzeko, existitzeko, pentsatzeko, amesteko.

Zubipe hau ene neurri moldatzea erabaki dut, nire herriko etxebizitza hutsen alokairua horren garesti mantentzen den bitartean behintzat. ◀

Urduliz

Euskarak gora egin du

Azken hamarkadan hirukoiztu egin da Osakidetzako langileen hizkuntza-eskakizunen egiaztapena.

Osakidetzako langileen herenak du egiaztatuta bere lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna, Jon Darpón Osasuneko sailburuak jakinarazi duenez. Hala, azken hamarkadan hirukoiztu egin da portzentaia hori. Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2013-2019 aldirako II. Planaren berri eman du sailburuak. Azaldutakoaren arabera, ia 134.000 pertsonen hautatu dute euskara Euskal Osasun Zerbitzuan arreta jasotzeko lehentasunezko hizkuntza. 2006an Osakidetzako 2.346 langilek (% 11,2k) zuten egiaztatuta hizkuntza-eskakizu-



la 134.000 pertsonen hautatu dute euskara lehentasunezko hizkuntza gisa Osakidetzan.

na, eta 2016an kopuru hori hirukoiztu egin da eta 8.998ra iritsiz (% 33,96). Darpónek, gainera, azpimarratu du iaz langileen % 10ak egin zituela euskara ikastaroak, eta lehenengo aldiz sartu direla euskararen gaineko adierazleak

Osasun Sailaren eta Osakidetzako erakundearen arteko harremana antolatzen duen kontratu-programan. «Gauza asko egin dira, baina oraindik ere beste asko daude egiteko», gaineratu du Osasuneko sailburuak. ◀

Ospitalearen bigarren pribatizazio bat ezeztatu dute

Urdulizko ospitaleko zerbitzu bat kanpo-kontrata batek hartzea ezeztatu du Eusko Jaurlaritzako Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak (KEAO), sindikatuek egindako eskaera bati erantzunez. Arropa-biltegia, lisaketa-, jostintza- eta geletako arropa-zerbitzuaren pribatizazioa bertan behera uztea eskatu zuen ESK sindikatuak, urtarrilean. Azaldu zuten, pribatizazio horiek ez zituzten betetzen 2008ko Mahai Sekretorialean onartutako akordioak; horien arabera, zerbitzu berriak kanpoan ez kontratatzeko konpromisoa hartu zuen Osakidetzak. Hala, KEAOk behin betiko ezeztatu du kontratu hori.

Bigarren aldia da organismo horrek ESK sindikatuaren eskariak onartzen dituen. Izan ere, Urdulizko ospitalearen sukalde-, kafetegia- eta elikadura-zerbitzuen eskaintza bertan behera uztea erabaki zuen joan den otsailaren 20an, arrazoi antzekoengatik. ◀

Uribe Kosta

Euskaraz ikasten jarraitzeko, Nahi Dudalako! ekimena

DBH euskaraz egin duten gazteek detorkizuneko ikasketak ere euskaraz egin ditzaten animatzeko Nahi Dudalako! ekimena ipini dute martxan aurten ere. Bizkaiko hainbat udalerrik parte hartzen dute proiektu horretan, tartean Uribe Kostako Berangok eta Erandiok. Ekimena 15 eta 16 urte arteko gazteei eta euren gurasoei zuzenduta dago. Horren helburua da DBH 4. mailan dabilen gazteek etorkizuneko ikasketetan ere euskarazko eredu aukeratzea. Horretarako, behar duten informazio guztia emango die; hori dena kanpainaren webgunean dago ikusgai. Horretan, gazteek Batxi-

lergoa zein Lanbide Heziketa euskaraz egiteko eskaintzaren nondik norakoak jasoko dituzte. Gainera, unibertsitateko eskaintza zein den ikusteko aukera ere ematen du webgune horrek. Hala, gazteek etorkizunera begira izan ditzaizketen zalantzak argitzeko baliagarria izango zaie. Webguneagaz batera, kanpainaren berri emateko diptikoa banatu zaie kanpaina bultzatu duten udalerrietako gazteei. Guztira 6.200 eskuorri banatu dira. Aurten, Lanbide Heziketak duen garrantzia nabarmendu gura izan dute, eta Lanbide Heziketa euskaraz egiten dabilen hainbat neska-mutilen testigantzak jasoko dituzte. ◀

Doako wifi zerbitzua handitu gura du Metro Bilbaok

Metro Bilbaok wifi zerbitzua 1.90 Meta 2. lineetako geraleku guztietara zabalduko du, datozen bost urteetan garatuko duen proiektuagaz. Horretarako, Wifinova enpresagaz daukan akordioa luzatuko du; hala, wifi-sarearen azpiegitura gainerako geltoki guztietara zabaltzeak dakarren inbertsioa egiteko konpromisoa hartu du. Orain arte, hamar geralekuk izan dute inter-

neterako sarbidea, doan. Azaldu duenez, helburua da metroko bezeroei doako sarbidea ematea, albisteak irakurri, posta elektronikoa begiratu, sare sozialetan sartu eta mezularitza zerbitzuak erabiltzeko aukera izateko. Zerbitzua aste barruan erabili ohi da gehien, eta iaz bisita gehien jaso zen eguna azaroaren 24a izan zen, 20.485 bisitagaz, Athletic-Sassuolo partidaren eguna. ◀

Unibertsitatea

Euskararen aldeko taldea sortu dute Leioako campusean

Euskararen aldeko taldea sortu dute Leioako campusean. Azaldu dutenez, egoera ezberdinak dira talde hori sortzera bultzatu dituztenak, hala nola graduak %100 euskaraz ikasteko ezintasuna eta ikasle-bizitza euskaraz egiteko zailtasuna. Hartara, Martxoan Euskaraz izeneko dinamika ipini

dute martxan. Horren bitartez, hainbat berbaldi eta proiektio ematez gainera, konpromisoak ere hartuko dituzte. Txapa bat eroango dute hilabete osoan, euskaraz dakien edonogaz euskara hutsen berba egiteko konpromisoa hartzeko, besteak beste. Gainera, manifestazio bat egingo dute hilaren 30ean. ◀

Urtebeteko espetxe zigorra EHUko lan-istripua dela eta

Bilboko epaitegiak urtebeteko espetxe zigorra ezarri dio Lan Ondo Multiservicios enpresako kudeatzaileari. 2014an Leioako campusean jazotako lan-istripu mortala dela eta eman dute epaia. Hala, epaitegiak enpresaren kudeatzaile bakarrari urtebeteko espetxe zigorra ezarri dio, langileen eskubideen kontrako delitua eta zuhurtziaz gabekeriaren giza hilketaren delitua egotzita. Ezbeharrak 2014ko maiatzaren 20an jazo zen, langile bat Leioako campuseko liburutegiko sabaitik erorita. Biktima inpermeabilizazio lanak egiten zebilen, ez zeraman arnesik eta, CCOO sindikatuak jakinarazi duenez, «enpresak ez zuen langilea Gizarte Segurantzaren alta emanda». ◀

Martxoaren 23an grebara deitu du Ikasle Abertzaleak

Ikasle Sindikatuak grebara deitu zuen Espainiar Estatuko ikasleria martxoaren 9an. Ikasle Ekintzak eta Eraldatu bat egin zuten deialdi horregaz, LOMCE eta errebaliden aurka egiteko. Ikasle Abertzaleak taldeak, berriz, ez zuen bat egin, eta hilaren 23an, eguean, Euskal Herriko ikasleria mobilizatzeko deia egin du. «Urte luzeak daramatzagu hezkuntza eredu propio baten aldeko borrokan, martxoaren 23an ere ikasleok kaleak hartuko ditugu, unibertsitate eredu hau eta LOMCE eta honen baitako errebalidak jo puntuan jarrita», aldarrikatu dute ikasle abertzaleak. Era berean, gogoratu dute borroka ez dela egun bateko kontua, «egunerokoa baizik». ◀



Bizkaia Zubiak ate irekien jardunaldia eta berbaldiak antolatu ditu.

Uribe Kostan

Berango

Burdin Hesiaren Oroimenaren Museoa
Simon Otxandategi, 64.
Astelehenetik barikura,
12:00-14:00 eta 17:00-20:00.
946 682 143 / burdinhesia@berango.org

Getxo

Getxo Aquarium
Getxoko Kirol Portua, zk.g. Algorta (Getxo).
Martitzenetik domekara,
10:30-13:30 eta 16:30-19:30.
944 914 661 / info@getxoaquarium.com

Bizkaia Zubia

Barria kalea, 3, behea. Areeta (Getxo).
promocion@puente-colgante.com

Plentzia

Plasentia de Butrón Museoa
Goienkale, 27.
Martitzenetik zapatuta, arrastietan (17:00-20:00), eta zapatu goizetan (11:00-14:00).
946 773 725 / contacto@museoplentzia.org

Kostaldekoko museoak

Eskualdeko museoek eta ondare-baliabideek ere Euskal Kostaldeko Museoen hilabetea ospatuko dute; berbaldiak eta beherapenak egongo dira, besteak beste.

Euskal Kostaldeko Museoen Sareak 60 ekintza, abantaila eta deskontu baino gehiago eskainiko ditu, martxo osoan: familientzako tailerrak, umeentzako jolasak, bisitaldi gidatu bereziak, doako sarrerak, eta abarrak. Erakunde horretako kideak diren Areetako Bizkaia Zubiak, Algortako Getxo Aquarium zentroak eta Plentziako Plasentia de Butrón museoak ere bat egin dute

Itsaso bete baliabide izeneko ekimenagaz. Hala, Bizkaia Zubiak ate irekien jardunaldia egingo du bariku honetan, hitzordua 10:00etatik 17:00etara ipini dute, martxoaren 17an. Horrez gainera, egun berean berbaldi bi egingo dituzte: *Itsas museo handiena, gure euskara* izenburukoa, Javier Goitia-gaz; eta *La vuelta a la vida de la ría de Bilbao*, Javier Francogaz. Berbaldiak arrastiko 07:00etan hasiko dira,

Getxo Elkartegia eraikinean, Areetako Ogoño kaleko 1. zenbakian. Getxo Aquarium-ek, bere aldetik, sarreraren prezioan %50eko deskontua egingo du, pertsona guztientzat, martxoaren 24tik 26ra bitartean.

Bestalde, *Principe de Asturias* itsasontziaren hondoratzearen 100. urteurrenaren gaineko erakusketa doan ikusteko aukera egongo da, Plentziako Plasentia de Butrón museoan, hilabete osoan; aurretik eskatu beharko dute bisitariak berori ikusteko hitzordua.

Museoak, interpretazio-zentroak eta bestelako ondare-baliabideak biltzen dituen elkarlanerako topagunea

izateko sortu zen Euskal Kostaldeko Museoen Sarea. «Eskaintza turistikoa osatu gura du eta kostaldeko eskaintza kulturala balioetsi, museo-produktu komunak garatuz, proiektuak partekatuz eta komunikaziorako zein sustapenerako ekimenak bultzatuz», arduradunek azaldu dutenez. Helburu horregaz antolatu dute Kostaldeko Museoen Hilabetea. Bestalde, aipatu beharra dago, Berangoko Burdin Hesiaren Oroimenaren Museoa ere sare horretako kidea dela. Egunotan, bisita gidatuak eskaintzen ditu, Batxilergoko eta DBHko 4. mailako ikasleei, *Bakerako hezten* programaren barruan. ◀

Zinegoak jaialdiko hainbat film, Erandion

Bilboko gaylesbotrans nazioarteko zinemaren eta arte eszenikoaren jaialdia martxoaren 5ean amaitu zen. Hala ere, ohikoa denez, Zinegoak jaialdiak beste hainbat herri-tan ere eskainiko ditu emanaldiak, Hedapenak atalaren bidez. Aurton, Hego Euskal Herriko 30 udalerritan baino gehiagotan ikusi ahal izango dira Bilboko jaialdian eskainitako ikus-entzunezko lanak; Erandion, egun bitan egongo da film laburren saioa, besteak beste. Emanaldi batean zein bestean, jatorrizko bertsioan proiektatuko dituzte pelikulak, gaztelaniazko azpitituluakaz; sarrera, doan. ◀

Egitaraua

Martxoak 21, martitzena

18:30 Behargintza (Bekoa ikastetxea).
Desanexio kalea, 4. Altzaga.

Film laburrak: *iNo es nada!* (Ez da ezer!), *Gabber lover* (Gabber maitalea), *Ana se intoarce* (Ana bueltan da), *Not Guilty* (Errugabea), *Grávido* (Gainezka) eta *Oh-be-joyful* (Oh-alaia-izan).

Martxoak 22, eguaztena

18:30 Josu Murueta kultur etxea.

Josu Murueta plaza, zk.g. Astrabudua.

Film laburrak: *Victoria Rosana Maite*, *iNo es nada!* (Ez da ezer!), *Take your partners* (Aukeratu bikotea), *Mamma vet bäst* (Amak gehiago daki) eta *Diva*.

Dolo Navas artista gorliztarraren lanak, Kultur Leioako aretoan, martxoaren 17tik aurrera

Dolo Navas artistaren erakusketa Kultur Leioan ikusgai egongo da, martxoaren 17tik maiatzaren 8ra arte. Hala, 2012tik gaur egunera arte egindako lanak erakutsiko ditu Bartzelonan bizi den gorliztarrak; oihalen gaineko marrazkiek eta besteak beste alkandorra zaharrak erabiliz landutako eskulturrek osatzen dute esposizioa. Horrez gainera, *Creatus propias alas* izenburuko tailerra eskainiko du artistak, maiatzaren 6an, zapatuan. Hitzordua 11:00etatik 13:00etara ipini dute. Jarduera doakoa da; baina, aldeztu aurretik izena ematea beharrezkoa da (oraindino ez dute zehaztu horretarako biderik). ◀

Sopelako Esaera Zaharren Txapelketa apirilaren 1ean izango da; izen-ematea zabalik dago

Apirilaren 1ean jokatu dute Sopelako Esaera Zaharren 24. Txapelketa. Urtero legez, Sopelako AEK-k egun osoko egitaraua prestatu du; eta aurtengo goiburua hau izango da: *Zakurra, nagusia milikatuz, ogi puska izaten du*. Eguna heldu orduko zerrendako ehun esaera zaharrak ikasteko denbora edukiko dute lehiaketan izena ematen duten taldeetako kideek; martxoaren 24ra arte izena eman ahal izango dute (10 euro, talde bakoitzak). Ostera, Ander Deuna Ikastolan egin ohi duten bazkarirako txartelak salgai egongo dira 15 euroan (lagun bakoitzak). ◀

info+: 618 574 445 / jose-p@aek.eus



Bizirauteko dantza egiten duen emakume bat da ikuskizunaren protagonista. © ROUGE ELEA



LEIOA

Desagertutakoen memoria Oroitzeke, egin dantza

Rouge Elea konpainiak *Hau da nire ametsen kolorea* ikuskizuna eskainiko du, Kultur Leioako entzungelan, martxoaren 24an, barikuan; saioa arrastiko 08:30ean izango da, eta sarrerak 5 eta 10 euro artean egongo dira salgai. Kultur iturri leioaztarrek zehaztu dutenez, 9 urteik gorako ikusleentzako saioa da; hizkuntzari dagokionez, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez

egingo dute berba. Musika, dantza eta objektuak uztaitez sortzen ditu ikuskizunak Rouge Elea konpainiak; «Diziplina arteko lurraldeak ikertzen ditugu, kartografia propio baten bila, eta izateari buruz galdetuzko gure buruari», azaldu dute taldeko kideek. Zehaztu dutenez, Kultur Leioan antzertutako duten lana hildakoei eskainitako dantza bat da; «desagertuta-

koen memoria bizi dadin egindako dantza euforikoa», euren esanetan. Ildo horretan, Pina Bausch (Alemania, 1940 - Alemania, 2009) dantzari modernoa, koreografoa, dantza irakaslea eta ballet-zuzendariaren berbak akordura ekarri dituzte: «Egin dantza, bestela geureak egin du», esaten zuen dantza-antzerki berri-tzaileenaren sortzaileak. ▶

ANTZERKIA

MARTXOAK 16, EGUENA

Maleta kontuak ipuin-saioa

18:00 | Algortako kultur etxea | Getxo
Maidier Galarzagaz. 4 urteik gorakoentzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

Francoren bilobarri gutuna

20:00 | Aitzagako Azoka Zaharra | Erandio
Antzerki Egunak zikloa. Artedrama. Le Petit Théâtre de Pain eta Dejabu Pimpin Laborategia antzerki-taldeakaz. Euskaraz. Sarrera, doan.

MARTXOAK 18, ZAPATUA

Confesiones de siete mujeres pecando solas

19:00 | Berango Antzokia | Berango
Luna Llena taldeagaz. Gaztelaniaz. Doan.

España ingobernable

20:00 | Areetako musika-eskola | Getxo
Poesia eta musika. Alberto San Juan aktoreagaz eta Alberto Egozcue gitarra-joleagaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 12 euro.

MARTXOAK 19, DOMEKA

No nos llega

19:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Xankore antzerki-taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

BERBALDIAK

MARTXOAK 16, EGUENA

Nuestra historia de mujeres construida a través de los feminismos berbaldia

18:00 | Goñi Portal kultur etxea | Plentzia
Araldi emakumeen elkarrekin antolatuta. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

La Europa que se viene viniendo berbaldia

19:00 | Getxo Elkartegia (Areeta) | Getxo
Teresa Aranguren Amézola kazetariagaz eta Francisco Javier García Castaño Antropologia Sozialeko katedradunagaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Literatura berbaldia

19:45 | Algortako Kasinoa | Getxo
Marta Sanzen *Farándula* liburuaren inguruan egingo dute berba. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

MARTXOAK 17, BARIKUA

Cuerda punteada y teclado

18:30 | Areetako musika-eskola | Getxo
Evolución histórica de los instrumentos tradicionales berbaldi-zikloa. Gaztelaniaz.

IKASTAROAK

MARTXOAK 17, BARIKUA

Dantza familiar saioa

17:30 | San Nikolas ikastola | Getxo
Sendi elkarrekin antolatuta. Gurasoen eta seme-alaben arteko erlazio afektiboa zaintzeko saioa. 2 eta 5 urte arteko umeentzat, gurasoakaz. Izen-ematea: sendi@egizu.eus

KORRIKA

MARTXOAK 17, BARIKUA

Festa eta afaria

18:00 | Euskadi plaza (Erandiogoikoa)
Dandaka jabetxean izango da afaria. Informazio gehiago: lauxeta@aek.org

Aurkezpena

19:00 | Txomin Aresti ikastetxea | Leioa
Sarrera, doan.

MUSIKA

MARTXOAK 16, EGUENA

Cloverwind folk-taldea

20:00 | El Comercio taberna (Areeta) | Getxo
Getxon Zuzenean zirkuitua. Sarrera, doan.

MARTXOAK 17, BARIKUA

Mikel Markez

19:00 | Udaletxeako bilkura-aretoa | Gortiz
Euskara Agendaren barruan. Sarrera, doan.

Afari akustikoa

20:00 | Kalezulo gaztetxea | Erandio
Sabor Flamenco taldeagaz. Potooa (20:00), afari beroa (21:00) eta tablaio flamenkoa (22:00) egongo dira. Sarrera: 5 euro.

Clara Peya pianista

21:00 | Kultur Leioako edaritegia | Leioa
Musika Gertu zikloa. Sarrera: 5-10 euro.

MARTXOAK 18, ZAPATUA

Barcelona Bluegrass Band

22:00 | The Piper's taberna (Algorta) | Getxo
San Patrizio eguna ospatzeko. Sarrera, doan.

MARTXOAK 19, DOMEKA

Inprobisazio-saioa

19:30 | El Comercio taberna (Areeta) | Getxo
Andrés Isasi musika-eskola jazz-taldeagaz. Sarrera, doan.

MARTXOAK 21, MARTITZENA

Musika klasiko entzunaldia eta berbaldia

GORLIZ

Euskarazko ipuinez gozatuz, Sertutxenan

Rosa María Martínez ipuin-kontalariak *Nahia eta Neo* ikuskizuna eskainiko du, Sertutxena eraikinean, zapatu honetan, martxoaren 18an. Saioa arrastiko 06:30ean izango da; sarrera, doan. 4 urtetik gorako umeentzat da ekitaldia. ◀

BERANGO

Umeentzako pelikula, euskaraz, domekan

Elurretako erregina filma euskaraz ikus- teko aukera egongo da, Berango Antzokian, domeka honetan, martxoaren 19an. Emanaldia arrastiko 06:00etan izango da; sarrera, doan. Zineuskadi elkarrekin itzuli du euskarara film hori. ◀

GETXO

Txikientzako ipuinak, Zinegoak jaialdian

Zinegoak jaialdiaren Hedapenak atalaren barruan, ipuinak izango dira entzunbide, Areetako Eskoletako plazako Kukupraka ludotekan, maiatzaren 22an, eguaztenean. Emanaldia 20:00etan izango da; sarrera, doan. ◀

Sarrera: 3 euro.

Cinco años de fotografía liburuaren aurkezpena

19:00 | Alzagako postetxe zaharra | Erandio
Ander Canales erandiozarragaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

MARTXOAK 20, ASTELEHENA

La evolución de la ópera (II): Pucinni y Wagner

19:30 | Algortako kultur etxea | Getxo
Mugabarik elkarrekin antolatuta. José Quisilant Monterrogaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

MARTXOAK 21, MARTITZENA

Irakurle Kluba

19:30 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Siri Hustvedt idazlearen *Elegía para un americano* liburua ezberba egingo dute. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

DEIALDIAK

MARTXOAK 17, BARIKUA

Aparkatzeo arazoak konpontzeko bilera irekia

20:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Parkingari konponbidea Orain izeneko auzo-plataformak antolatuta du. Zinegotziak gonbidatu dituzte.

ERAKUSKETAK

MARTXOAREN 17TIK MAITZAREN 8RA

Dolo Navas 2012-17

Kultur Leioako erakusgela | Leioa
Dolo Navas artista gorlitzarrek oihalakaz egindako eskulturak. Sarrera, doan.

MARTXOAREN 22RA ARTE

Olatz Aspiazuren margolanak

Algortako kultur etxea | Getxo

Asteleheneetik zapatara. Sarrera, doan.

MARTXOAREN 24RA ARTE

Emakumeen begiradak

Goñi Portal kultur etxea | Plentzia

Erakusketak kolektiboak. Asteleheneetik barikuetara. Sarrera, doan.

MARTXOAREN 31RA ARTE

Loreen sentsualitatea

Torrene Aretoa (Algorta) | Getxo

Itziar Nazabal margolanak. Asteleheneetik domeketara. Zuzeneko pintura-saioa egingo dute, zapatu honetan, martxoaren 18an. Hitzordua 19:00etan ipini dute; sarrera, doan.

19:30 | Liburutegi zaharra | BARRIKA
Gertuko auzo-elkarrekin antolatuta. Johannes Brahms musikariaren *Biolin eta orkestrarako kontzertua*, *Re maiorrean* entzungo dute. Doan.

ZINEMA

MARTXOAK 16 ETA 17

Sopela Surf Film Sessions

19:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela

Surfaren inguruko film laburren topaketa; hainbat zinemagilek eta surfilarik parte hartuko dute. Euskaraz eta gaztelaniaz. Sarrera, doan.

MARTXOAK 16, EGUENA

La chica danesa

18:30 | Algortako kultur etxea | Getxo

Enclave Getxoko emakumeen elkarrekin antolatuta. Berbaldia ere antolatu dute. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

MARTXOAK 17, BARIKUA

Corazón gigante

21:00 | Areetako musika-eskola | Getxo

Cinema Paradiso. 12 urtetik gorakoentzat. Islantieraz, gaztelaniazko azpitulua. Sarrera: 2.90 euro.

MARTXOAK 18, ZAPATUA

Ballerina animazio-filma

17:30 | Kultur Leioako entzungela | Leioa

Denontzat. Euskaraz. Sarrera: 3,50 euro. Domekan (martxoak 19) ere proiektatuko dute.

Benito Sansón y los taxis rojos

18:00 | Kultur etxea | Urduliz

Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

Que Dios nos perdona

19:00 | Berango Antzokia | Berango

Filma 16 urtetik gorakoentzat da. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Hotel Europa

20:00 | Kultur Leioako entzungela | Leioa

Gaztelaniaz. Sarrera: 4,50 euro. Domekan (martxoak 19) eta astelehenean (martxoak 20) ere proiektatuko dute.

MARTXOAK 19, DOMEKA

Trolls animazio-filma

17:00 | Areetako musika-eskola | Getxo

Igandeke Haur Zinea. Denontzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,10 euro.

MARTXOAK 21, MARTITZENA


Animales nocturnos

20:00 | Kultur Leioako entzungela | Leioa

Peiseo zineforuma. 16 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2.50 euro.

1 Bidali informazioa helbide elektronikoko honetara: hiruka@hiruka.eus

2 www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.



Tximinia-gizonak mundu gris bat sortu dute; kolorea kendu diote. Lurra salbatzen ahaleginduko dira herritarak. © BOROBIL TEATROA

Borobilen Gu antzezlan, Sopelan

Anartz Zuazuak zuzentzen duen obrak gure planeta jabeteko aldarrikapena plazaratu gura du; horrez gainera, «umorea erabiliz, familia osoarentzat antzerkia egitea» da Borobil taldearen helburua. Txikiei zein handiei begirako antzerki-lana da *Gu* (*ez gaude bakarrik*). ◀

Noiz: Martxoak 19, domeka.

Ordua: 18:00

Non: Kurtzio kultur etxea.

Sarrera: 3 euro (umeek) / 5 euro (helduek).

Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:



Sopelako Ander Deuna ikastolan jokaturako zuten hirugarren kanporaketa uribekostarrek, Hego Uribekoen aurka.

Bertso-lehiak

Laugarren kanporaketa

Martxoak 21, martitzena

10:30 Lea Artibai vs Uribe Butroe.
Markina-Xemeingo kultur aretoan.

Lehenengo finalaurrekoa

Martxoak 24, barikua

10:00 Busturialdea vs Enkarterri/
Ezkerraldea. Zallako zine-antzikian.

Bigarren finalaurrekoa

Martxoak 28, martitzena

12:00 Uribe Kosta vs 4. kanporaketako
talde-irabazlea. Durangoko Fray Juan de
Zumarraga institutuan.

Finala

Martxoak 30, eguena

19:00 Bilboko Kafe Antzikian.

info+: www.bertsozale.eus

Uribekostarrak, finalaurrekora

Eskualdeko bertsolari gazteek irabazi dute hirugarren kanporaketa, Hego Uriberen kontra, Sopelan.

Bertsolari Gazteen BBK Txapelketaren hirugarren kanporaketa jokatu zuten Uribe Kostak eta Hego Uribek atzo, hilaren 15ean, Sopelan. Txapelketaren 25. ekitaldi honetan, gure eskualde-

ko taldearen ordezkariak hauek izan dira: Naroa Torralba, Aritz Landeta eta Maider Barañano (18 urtez azpikoak), eta Inazio Vidal, Paule Loizaga eta Kerman Diaz (18-24 urte artekoak). Hego Uribekoak izan zituzten aurrez aurre,

eta uribekostarrek lortu zuten finalaurrekoetako batean lehiatzeko txartela; hala, ondorengo hitzordua hilaren 28an izango dute, Durangon.

Bestalde, martxa hartu du Bizkai-ko Taldekakoak ere. Aste-akabuko bertso-lehietan eskualdeko talde bik parte hartuko dute: batetik, Leioatik Begira taldeak Markina-Xemeinen jokatu du bertso-norgehiagoka, za-

patuan, 19:30etik aurrera, eta aurkari izango ditu Otsoko (Busturialdea) eta Akerbeltzen antxumak (Markina-Xemein) taldeak; bestetik, Ulutiko Intxahulak taldea Santutxun lehiatuko da, egun berean, 18:00etatik aurrera, eta aurrez aurre izango ditu Bratva eta Santutxuko Bertso Eskola. Gora Tangora! taldeak apirilaren 2an izango du zita, Larrabetzun. ◀

Hitza emanda



Gogora

*Esperientzia alaitik
bizipen beltzera...
berba motzenetatik
maite laztanera...
osagai ugaridun
morokil antzera,
oroitzapenak datoz
garun gotorrera!*



**JOSU
LANDETA
EGURROLA**
Bertsolari getxoztarra

HIRUKAK proposatutako hitz baten harira, ALBEko kideek bertso bat jarriko digute atal honetan, astero-astero.



Konpositore getxoztar bila dabil Areetxo abesbatza, gero kanta horiek abesteko

Euren sorkuntzak bidaltzeko eskatu die herriko musika-sortzaileei Areetxo ganbera-abetesatzak. Areetako eta Getxoko abeslariak osatutako abesbatza Getxon jaio edo bizi diren musikagile bila dabil: musika-koralaren konpositore guztiei dei egin die, euren lanak helarazteko, gura izanez gero. Konpositore Getxoztarren II. Kontzertuak ekimenean parte hartuko du Areetxok, azaroaren 28an; ekitaldi horretan, musikagile getxoztarren kantak abestu gura dituzte. Hori dela eta, ordurako musikagile getxoztarren obrak lortu eta prestatu behar izango dituzte. Areetxokoek jakinarazi dutenez, obrak argitarabakoak zein argitaratutakoak izan daitezke, eta horiek helarazteko zein harremanetan ipintzeko hainbat bide eskaini dituzte, euren Areetako egoitzara hurreratzera, besteak beste: Joaquín Arellano kalea, 5, baxua, ezkerre. ◀

info+: info@areetxo.es / 662 905 453

Antzezlan laburren lehiaketa, Ondiz dorrean

Kalian Hiri Kultur Guneak bigarren antzerki-lan laburren jaialdia. Aurrekoan legez, Ondiz dorrean egingo dute ekitaldia, ekainaren 10ean, hain zuzen ere. Orduantxe, eszenaleku ederrean, lau obra taularatzeko asmoa dutela iragarri dute antolatzaile leioztarrek; eta antzerkiko mikrolanen lehiaketa moduko bat ere prestatu dute, lau antzezlan horiek aukeratzeko. Hala, interesdunek euren proposamenak bidali ahal izango dituzte apirilaren 17ra arte, Kalianen helbide elektronikora. Proposatuko diren lanek 10-15 minutu artean iraun beharko dute, eta beharrezkoa da horien ezaugarriak zehazten dituen txostentxo bat bidaltzea ere. Horrez gainera, antzezlan laburren bideo bat ere helarazi beharko zaie antolatzaileei; beste behar batzuk ere badira (alboko taulan zehaztuta daude). ◀

info+: www.kalian.es

Oinarrietako batzuk

Aurkeztu beharrekoak

Txosten bat, ondokoak zehaztuz: zuzendaria, aktoreak, sinopsi laburra, eszenaratze-proposamena, datu teknikoak (soinua, irudia, proiektoreak, beharko luketen gunearen mota eta azalera, etab.), eta harremanetan ipintzeko helbide elektronikoko bat zein telefono-zenbaki bat. Gainera, irudi bat (300 puntuko kalitatean eta jpeg-n) eta bideo baten dokumentazioa (youtube edo vimeo guneetako loturagaz; *we transfer* bidez ere helaraz dakieke).

Epea eta bidea

Apirilaren 17ra arte jasoko dituzte proposamenak, hurrengo helbide elektronikora: info@kalian.es.

Lau aukeratuak

Lau antzerki-lan labur aukeratu dituzte; horiek izango dira II. Kalian Lan Laburren jaialdian oholtzaratu dituztenak.

Taularatzera

Ekainaren 10ean, zapatuan, Leioako Ondiz dorrean.

«Garrantzitsua da eszenaratzea ere; umorea eta ikuskizuna eskaintzea»

The Binilos taldearen kontzertua eskainiko du martxoaren 23an, eguenagaz, Algortako The Piper's tabernan.

TESTUA: ASIER BARRUETABEÑA RIVALLO
ARGAZKIA: SARA DE DIEGO

Algortako atiko ezkutu eta eder batean topatu ditugu The Binilos taldeko kideak. Orduak ematen dituzte kafeen artean, inspirazio bila, erabat girotua dagoen egongela txiki batean, garai bateko taldeen antzera, garaje batean barik atiko batean. Etxera sartu eta gelako horma batean ikus daitekeen Janis Joplinen argazki apurtuak argi uzten du hirukote honek euren musikan zer motatako influentziak bilatzen dituen.

Nortzuek osatzen duzue taldea? Beste batzuetan ere bazabiltzate, ezta?

Oier Garamendi: Algortakoa naiz, Ou Mama eta Cloverwind taldeetan jotzen dut, eta Kuenta Atras taldean kolaborazioak ere egin ditut.

Irantzu Garamendi: Leioakoa naiz, Cloverwind taldean, Urrats Erromeria taldean eta Kepa Junkerarekin jotzen dut; Keparen sorginetako bat naiz.

Xabi Torralba: Leioakoa naiz, Guda dantza taldean jotzen dut, eta Ou Marekin birritan jo izan dut.

Zelan sortu zen talde honen ideia?

O.G.: Taldearen historia Irantzurekin eta biokin hasi zen; gero, Xabi sartu zen, kontzertu bakarra eman duena. Hasierako bikoteari dagokionez, beste musika talde bat daukagu komunean, Cloverwind izenekoa. Askotan ezin genuen taldekide guztiok egun berean entseatu edo jo; hori dela eta, alternatiba moduan, biok bakarrik jotzen hasi ginen, talde handiak sartzen ez ziren lekuetara joan ahal izateko. Hasieran Garabi ginen biak Garamendi garelako, eta hortik GaraBi, bi Garamendi, bi gara, gara bi... Kar, kar. Apur bat denetarik jotzen hasi ginen, euskal abesti topikoak; ingelesez, bakoitzak taldean jotzen zituenak, eta edukitako «tiroia» ikusita, egun batean eseri ginen ideiarri forma emateko, bai izenari, estiloari, kontu guztiari... Eta hortik finkatu genuen The Binilos ideia.

Eta zergatik bada The Binilos?

O.G.: Batez bere bi ginelako, eta lotura bilatu nahi guelako 50-60. hamarka-



Orain dela urtebete eskas sortutako taldea da The Binilos, taldekideek musika-ibilbide zabala izan arren. ©SARA DE DIEGO

detako kontu tipikoekin: biniloa, gauza retroak... Kontua da gero Xabi etorri zela, eta izena trinitosera aldatzea ez genuela ondo ikusi, kar, kar, kar.

Musika eta antzerkia batu dituzue, zein da arrazoia?

O.G.: Azkenean gure mailako musika-taldek eskaintza berdintsuak egiten dituzte: bertsioak edo abesti propioak, gehiagorik ez. Jendeak abestiak ezagu-



The Binilos



Taldekiak

• Oier Garamendi (ahotsa eta kitarra), Irantzu Garamendi (ahotsa, perkusio txikia eta zeharkako txirula) eta Xabi Torralba (kontrabaxua).

Sorrera-urtea

• 2016ko maiatza.

Hurrengo kontzertuak

• **Martxoak 23:** Algortako Piper's tabernan.

Erreferentziako 5 talde

• Peter Paul and Mary, Bing Crosby, Debbie Reynolds, Frank Sinatra eta Estitxu.

Facebook: [thebinilos](https://www.facebook.com/thebinilos)

tzen ez dituenek, zailagoa da publikoak erakartzea, beti ere zure jarraitzaileak ez badira. Guk uste dugu umorea eta ikuskizuna eskaintzea oso garrantzitsua dela. Proiektu honetan Ou Mamak egiten duena baino harago eraman dugu kontua, eta gidoi bat egin dugu garai hartako irratsaio bat izango baltiz bezala, iragarki originalekin...

Hipster-en, modernoan eta garai bateko moden aro honetan, 50-60. hamarkadako estiloa hautatu duzue; gehiago saltzeko itxura hutsa da ala erakartzen zaituzten estiloa delako?

O.G.: Galdera oso aproposa, kar, kar. Baina, benetan erakartzen gaituen estiloa da! Gu ez gara *hipsterak*, ez gara *bitnikak*; baina, egia da gure estiloa garai hartan kokatzen dugula. Esatea, gaur egun, bere burua *hipstertzat* duen jendeak ez daukala zerikusirik 50. hamarkadako *hipster* bategaz, edo *bitnik* bategaz; baina, batekin identifikatzekotan, 50. hamarkadako *bitnik* bategaz identifikatuko nintzateke. Gaur egungo *hipstera*, azken finean, itxura bat, irudi bat, musika mota bat baino ez da... Beraz ez da «*por ir de moderno...*». Gure erronka da garai hartako abesti ezohikoan jotzea, besterik ez.

Letrak sortzeko orduan, hain finak eta originalak izanda, zergatik ez pauso hori musika sortzeko unean?

I.G.: Cloverwindentzat, bai; baina, gehiagorik konposatu ez badut, denbora faltagatik izan da.

Hasiera batean, bi hasi zineten, eta oraingoan, kontrabaxua sartu duzue... zer dela eta?

O.G.: Proiektua berez birentzakoa zen, *boloak* lortzeko orduan errazagoa delako... Baina, egun batean, Xabik deitu ninduen esanez kontrabaxua lortu zuela, eta segituan non sartu pentsatzen hasi ginen, kar, kar. Kontrabaxua jende gutxik jotzen du eta.

Honezkerokaleratu duzue maketarik edo diskorik?

O.G.: Zarata estudioan Jorge Peralesekin 3 abesti grabatu ditugu, bideo klip bat egiteko asmoz; etorkizunean, abesti gehiago grabatzeko asmoa daukagu. Lehiaketetan parte hartzeko ezinbestekoa da eta.

I.G.: Guk antzerkia egiten dugunez, disko bat grabatzea apur bat «soso» zen, zer edo zer gehiago eskaintzea dugu buruan, bideo-CD moduko bat, gure kontzertua ikusi ere egin dezaten.

Aipatu gura izango zenuketene beste konturen bat?

O.G.: Nahiz eta umorezko ikuskizun bat edo *show* bat egiten dugun, erdi isilean edo, ahalegintzen gara garai hartako gizarte ereduak kritikatzeko ere. ◀

Euskara eta feminismoa bidaide berbaldia eskaini zuen Lorea Agirre Dorronsoro beasaindarrak, Algortako Aldai patronatuan, martxoaren 3an. Bere herrikidea den Idurre Eskisabelek ere parte hartu zuen ekitaldian; antropologoak eta kazetariak dira biak. Ordukoak utzitako hariei tiraka, feminismoak eta euskalgintzak daukaten harremanaz berba egin digu Agirrek. Bere ustez, «logikoena da feminista bazara euskaltzalea ere izatea».

«Euskararen normalizazioa eta feminismoa eskutik doazen borroka bi dira»



TESTUA: KEPA UGARTE MARTIARENA / ARGAZKIA: HODEI TORRES

Zein da Euskara eta feminismoa bidaide berbaldien jatorria edo abiapuntua?

Orain dela bizpahiru urte, Arrasate Euskaldun Deza-gun (AED) elkarteak eta bertako Emakume Txokoak mahai-ingurua antolatu zuten elkarrekin; saio horretan, dagoeneko guk buruan geneukan galdera bat planteatu ziguten: Feminista izan zaitezke euskaltzalea izan gabe? Gure arteko eztabaidetan askotan ateratzen zen gai hori; baina, publikoki planteatzen ziguten lehenengo aldia zen. «Bete-beteen asmatu duzue», esan genien antolatzaileei. *Twitteren* ere iragarri zuten saioa, eta guk ondokoa erantzun genuen sare sozial horretan, mahai-inguruaren aurretik: «Ez. Baina, feminista baldin bazara, euskaltzalea izan behar zara». Gizonezko batek iruzkina egin zion horri: «Orduan, Marguerite Duras eta Angela Davis euskaltzaleak dira, feministak direlako?». Guk baietz erantzun genion. Ausarkeria izan zen; baina, defendatzen ari ginena adierazteko modu bat izan zen.

Ordurako gu hasiak ginen borroka horiek nola uztartuko genituen hausnartzen; besteak beste, Angela Davisen Feminismo Intersektionalaren Teoria gurea egin genuen. Gure logika diskurtsiboaren edo pentsamendu horren barruan, logikoena da feminista bazara euskaltzalea izatea.

Zein helburu daukate mahai-inguru hauek?

Nik hiru helburu zehaztuko nituzke: bat da gure pentsamendua garatzeko motibazioa sortzea; beste bat, eztabaida-bide bat zabaldu nahi dugula, mahai-in-

gurutara datozenek ere euren iritziak plazara ditzaten; azkena, jendeak pentsa eta hausnar dezan nahi dugula, eztabaida horiei esker. Diskurtso bat garatzea ere eragiteko modu bat da; baina, besteak motibatzea eta hausnartzera bultzatzea aberasgarriagoa dela uste dugu. Hori izango litzateke solasaldien birtatez bilatzen ari garena.

“ Euskararen zapalkuntza eta emakumeok sufritzen dugun bereizkeria herritar guztioi eragiten diguten arazoak dira ”

Zein da feminismoaren eta euskalgintzaren arteko harremana edo lotura?

Oso gaintetik esanda, gizarte zibilaren mailan egituratuta dauden mugimendu feministak Euskal Herrian, bereziki, bi lekutan eman dira: alde batetik, emakumeen taldeak aitzindariak izan dira Hego Euskal Herrian, feminismoaren aldeko borrokan; beste alde batetik, Iparraldeari dagokionez, garai berean, 70eko hamarkadan, bazegoen abertzalea ere bazen talde feminista bat. Hala ere, Pirinioen beste aldera baino ez zen mugatzen bere jarduna. Azkenik, hirugarren multzo bat ere badago: ezker abertzalearen

baitan azken 40 urteetan sortzen joan diren egitura feminista ezberdinak biltzen dituena. Batzuk desgertuz joan dira... Esan genezake, momentu honetan, horien oinordekoa Euskal Herriko Bilgune Feminista dela. Hala ere, ezin dugu ahaztu erakunde horrek modu autonomoan funtzionatzen duela.

Espainiako herrietan ere badaude Hego Euskal Herrian aurki ditzakegun emakumeen taldeen parekoak; feminismo klasikoa hobekiago integratu da Espainiako tradizioan. Gauzak horrela, ezker abertzaleak eta zabalagoak izan daitezkeen mugimendu eraldatzaileek eta independentistek ez dute harreman handiegirik izan emakumeen taldeekin. Batzuek nazio-askapenaren alde egiten dute; eta beste batzuk, zentzu horretan, apolitikoak dira. Ez dira eztabaida nazionalistaren baitan kokatzen. Are gehiago, batzuetan horren aurka lerrokatzen dira. Bestalde, ezker abertzalearen baitan, hizkuntzaren gaia hor dago, zehaztu edo pentsatu gabe, seguru asko. Baina, jakina! Euskaltzaleak ere badira. Beste mugimendua, ordea, ez da bereziki euskaltzalea: aipatutako emakumeen talde horiek ez diote hizkuntzari garrantzirik ematen.

Hala ere, azken urteetan talde ezberdinen arteko elkarlan bat abiatu da, ezta?

Bai. Azken urteetan feminismotik bertatik, ez euskalgintzatik, elkarlan bat abiatu da; Euskal Herriko Koordinakundea dago eta, bertan, ideologikoki edo politikoki diferenteak izan daitezkeen taldeek lan-



keta bati ekin diote. Arlo horretan, ezin dugu aipatu gabe utzi Mari Luz Esteban antropologoak egindako lana; lehenengo aldiz berak aipatu zuen euskararen normalizazioa eta feminismoa elkarlotura bat egiteko momentuan egon zitezkeela. Gu bere alabak gara, bere ikasleak gara, eta horri heldu genion. Gaur eta orain ikusten da hizkuntzaren ezaugarri hori beste talde feministetan sartzen ari dela. Bilgune Feministan oso presente dago; baina, emakumeen elkarrekin ere kezka hori daukate: injustizia baten kontra egoitea posible ote den, beste injustizia batzuen aurrean itsu zauden bitartean.

Gogoeta bat isiotu da...

Poliki-poliki, baina, egoera soziolinguistikoa ere hobetzen ari da; belaunaldi gazteak elebidunak dira eta errazagoa da hizkuntzaren afera erdian kokatzea. Euskalgintza eta feminismoa urte luzeetako bidea egin duten mugimendu zibilak dira: azken 40-50 urtean garatu egin da bien aldeko borroka. Bestalde, 1977an edo, erakundetze-prozesuarekin, bi elementuak erakundeetan sartu ziren. Euskara izan zen bide hori egin zuen lehenengoa; normalizazioaren legea, EITB eta horrelakoak sortu ziren. Horretaz gain, euskara-teknikariak lanean hasi ziren. Geroago, baina ez askoz beranduago, berdintasun-teknikariak ipini zituzten udaletan eta gainontzeko erakundeetan. Mundu horrek gizartetik erakundeetara jauzi egin zuen. Gauzak hala, leku batzuetan ohartzen hasi ziren euskara-teknikaria

eta berdintasun-teknikaria, nolabait, udaletxean, azken muturrean zeudela; aurrekontu txikiena zeukaten eta garrantzi txikiena ematen zieten langileak ziren. Hori guztia euren ahotik jaso dugu... Leku batzuetan, horregatik bakarrik hasi ziren gauzak elkarrekin egiten: «antolatuko dugu hau herrian eta egin daiteke bietara...».

“ Norbaitek eskubideak falta baditu, beste norbaitek pribilegioak ditu; bai euskarari bai feminismoari dagokienez ”

Eskutik helduta joan beharko luketen borroka bi direla uste duzu?

Bai. Arrazoi bat baino gehiago dago horrek horrela izan behar duela pentsatzeko: arrazoi horietako bat da antzeko egoeran daudela gatazka horiek; beste bat, bi borroka zibil direla; eta, ezin dugu ahaztu, Euskal Herrian, eztabaidaren erdigunean daudela gai biak. Generoaren kasuan inolako zalantzarik ez dago; herritarren erdia baikara emakumeak. Ezberdinkeria horri guztiari aurre egin behar zaio. Eta, horren albotik, kontuan izan hizkuntzarena ere badela gure borroketako bat.

Feminismo Intersektionalaren Teoria aipatu duzu; labur bada ere, azal dezakezu?

Aurreko galderan erantzun dudanarekin erabat lotuta dago Angela Davisen teoria hori. Batetik, aipatu beharra dago, gehienetan, pertsona bera edo komunitate bat menderatua izaten dela; baina, ez beti. Bestalde, arlo batean baino gehiagotan eta aldi berean gertatzen dira zapalkuntza-egoera horiek. Emakumea edo euskal hiztuna izateagatik uneoro baztertzen gaituzte eta leku batzuk ukatzen dizkigute. Guk beti esaten dugu ez dela identitate kontu bat; uste dugu beste bat dela debatea: justizia sozialaren aldeko bi borroka dira, eta demokrasiaren «frogarako kotoia» pasatzen hasten bagara, horietatik bietatik ere pasatzea beharrezkoa dela. Euskaraz bizi ezin dudan momentutik demokrazia hori hankamotz dago. Aldi berean, emakume bezala ezin badut nonbaiten sartu edo nonbaiten hitz egin, zeozer kale egiten ari da.

Azken finean, euskararen zapalkuntza ez da euskaldunon edo euskaltzaleon arazoa soilik; halaber, sexu-generoagatik sufri dezakegun bereizkeria ez da bakarrik emakumeon afera. Herritar guztioi eragiten digun arazoa da; justizia sozialeko kontu bat da.

Boterearen beste irakurketa bat egiteko beharra dagoela esaten duzue.

Garai batean ulertzen zen goitik behera inposatzen ziguten zerbait zela boterea; baina, gaur egun badakigu beste norabide batzuetan eman daitekeela: ezkerretik eskuinera, behetik gora, sare batean... Gainera, ohartu behar gara gauza batzuetan menperatuak gu garela, eta beste batzuetan gu garela menperatzaileak. Azken finean, borrokan dauden berdintasun-aldarri guztiak beste botere-harreman batzuk eskatzen dituzte. Norbaitek gutxiago badu, beste norbaitek gehiago du; norbaitek eskubide falta badu, beste norbaitek pribilegioak ditu. Euskaraz hitz egin ezin badut, beste norbaitek eragozten didalako izango da. Feminismoari dagokionez, ez da bakarrik gizon eta emakumeen berdintasuna aldarrikatzea; gizarteari proposamen politiko berri bat egitea da. Goazen bada botere-harreman horiek ahalik eta justuenak izan daitezen egitera.

Antropologoa izateaz gainera, kazetaria zara. Zer egin daiteke esparru horretatik euskararen zein emakumeen zapalkuntzaren aurka borrokatzeko?

Kazetaritzaren aldetik asko egin daiteke. Gero, eragina izango da izango dena. Baina, nire ustez, kazetaritza ez da notario-lana; ez da kontatzea beste norbaitek prentsaurrekoan esan duena. Zuk dakizunarekin edo zuk bilatzen dituzun bestelako baliabideekin, hori bere testuinguruan kokatzeko gaitasuna izatea da. Lehen aipatu dugun botere-harreman hori kazetaritzan ere gertatzen da, albiste ematen den unetik bertatik. Albiste hutsaz harago, beti ari gara beste zerbait gehiago esaten gure hitzekin; berbak ez dira neutroak. Hori guztia kontuan hartuta, gauza asko egin daitezke: alde batetik, emakumeak ikusgarriago egin. Emakumezkoak badira arlo diferenteetan. Gero, «betaurreko moreak jantzi» behariko genituzke, gertatzen dena zergatik gertatzen den ulertu ahal izateko. Gauza asko daude egiteko: emakumei ahotsa ematea, adibidez. Kazetariok asko egin dezakegu. Uste dut kazetaritza berdinzale bat egin daitekeela eta, zalantzarik ez daukat, Euskal Herrian egiten ari garela. Oso eredu politikari gara ematen; hori ere bada notiziaren zatia. ◀



Getxo Rugby, zerua eta hondoa

Puntu bakarra behar du Getxok finalerdietan sartzeko; daborduko mailan mantentzea lortu dute. © AITOR URIARTE - GETXO RUGBY TALDEA

Getxo Rugby Taldeak Olímpico Pozuelo izango du arerio zapatuan. Getxoko emakumeek finalerdietan sartzeko behar duten puntua lor lezakete, liderraren aurka.

Getxo Rugby Taldeak 11-27 irabazi zion Sanse Scrum taldeari pasa den aste-akabuan, Madrilen. Bost ensegua eta sailkapenerako bost puntu gehiago lortu zituzten.

Hala, bost jardunaldi jokatu, emakumezkoen senior taldea bigarren doa jada taulan. Klubaren ustez, hori

«oso posizio eroso» da «ligako play-offen faseari ekiteko». Bárbara Plà Getxoko joko-zabaltzaileak esan duenez, «bost puntu horiekaz, Ohorezko Mailan iraungo dugula ziurtatzeaz gainera, playoffetan pentsatzen has gaitzek». Beren-beregi, taldeak puntu bakar bat behar du lehenengo lau sailkatuen artean geratuko dela ziur-

tatzeko. Izan ere, Getxo buru-belarri sartu da Ohorezko Mailako finalerdietan egoteko borrokan. Getxoztarrek 19 puntu dituzte, Olímpico Pozuelok baino sei gutxiago. Hain zuzen ere, sailkapeneko burua izango da hori-beltzen hurrengo arerioa; Madrilen izango dute partida, zapatuan. Beraz, bizkaitarrak are gehiago hurreratu ahal izango lirarteke lehenengo postura. Halere, Plàren ustez «partida zaila» izango da: «Olímpicok bere partida denak irabazi ditu hobariakaz, eta garaitu beharreko aurkaria da». Dena den, getxoztarrek

prest daude demarako: «zailtasunak zailtasun, ahalegindu egingo gara. Erronka bat da eta gu erronkazaleak gara», agindu du Plàk.

Jaitsieratik ihesean

Getxo Rugbyko gizonzkoen talde nagusiak oso bestelako errealitatea bizi du gaur egun. 4 partidaren faltan, bederatzigarren daude taulan, 23 puntugaz. Jaitsieratik sei puntura daude, eta jaitsiera-promoziotik bostera. Martxoaren 26an derbi garrantzitsua jokatuko dute Hernaniren aurka. ◀

Batallas dokumentala, barikuan ikusgai

Datorren barikuan, martxoaren 17an, *Batallas* 15 minutuko film dokumental laburra aurkeztuko dute Algortan. Perimetroak bekaren proiektu irabazleak aztertu du kirola, arte eta generoaren arteko harremana, emakumezkoen errugbia ardatz hartuta. Algortako Fadura kiroldegiko areto nagusian proiektatuko dute filma, 18:00etan. Ondoren, berbaldia izango da kirolean, genero-berdintasunean eta artean ibilitakoakaz. Sarre-ara doakoa izango da, aretoa bete arte. Juan Luis Bercibar soziologo bilbotarra izan da proiektuaren egilea; dokumentalaren bitartez, aipatutako espa-



© JUAN LUIS BERCIBAR

rriuen gaineko ikerketa gerturatu gura izan du errugbiaren mundura. Filmaren protagonistak Getxo Rugby Taldeko zenbait mailatako emakume jokalariek dira. Bercibarrek errugbiaren baloreak ere erakutsi ditu filmean. ◀

Bárbara Plà eta Uribarri Barrutieta, Las Vegasen

Getxo Rugby Taldeko Bárbara Plà eta Uribarri Barrutieta irabazi zuten Las Vegaseko Trophy saria, martxoaren lehen aste-akabuan. Las Vegaseko Emakumezkoen Munduko Serieetako zazpiko errugbi-probetako bat da. Getxo Rugbyko jokalariek Espainiako selekzioagaz jardun zuten; finalean 0-10 nagusitu zitzaizen Ingalaterrako selekzioa. Hala, Plà eta Barrutietaren taldea daborduko munduko bederatzigarren postuan dago sailkatuta. Finalaren aurretik, Brasil, Fiji, AEB eta Irlandaren aurka jokatu behar izan zuten getxoztarrek. Bestalde, Kerman Aurreko-



Plà, Irlandaren aurka. © MIGUEL LEGUEY - FER

txea Getxo Rugby Taldeko jokalaria prestatzen dabil Frantzia apirilaren 7tik 15era jokatuko den Europako Txapelketarako. Espainiako selekzioak 29 jokalaria deitu ditu; haietatik Aurreko-txea da uribekostar bakarra. ◀

Aixerrota, birritan txapeldun



Aixerrotako ume-taldea Sestaori nagusitu zitzaion. © GETXO AIXERROTA BOLEIBOL KIROL TALDEA

Getxo Aixerrota Boleibol Kirol Taldeak Euskadiko Emakumezkoen Boleibol Txapelketa irabazi du ume- eta gazte-mailatan. Pasa den martxoaren 3an, ume-titulua lortu zuten Lekeition, Sestaoko taldeari finalean 3-1 irabazita. Lehenengo bi setak oso paretsuak izan ziren; lehenengoan gorri-beltzak 25-23 nagusitu ziren, baina bigarrenean heldu zen sestaoarren erantzuna: 21-25. Bana berdinketa eginda, bazirudien luzetu egingo zela norgehiagoka, baina hurrengo set bietan nabarmen nagusitu ziren Aixerrotakoak: 25-11 eta 25-17. Hala, Euskadiko Boleibol Txapelketa saria ekarri zuten etxera. Euskadiko talde txapeldun gisa, Aixerrotak Espai-

niako Boleibol Txapelketan parte hartuko du datorren maiatzean, hilaren 17a eta 21a bitartean.

Aurretik, gazte-mailako Emakumezkoen Euskadiko Boleibol Txapelketa irabazita zeukan klubak; etxean lortu zuen garaipena, Algortako Fadura kiroldegian, finalean Donostiako Vasa Fortunari 3-2 irabazita. Etxekoek 26-24, 13-25, 18-25, 25-10 eta 16-14ko partzialak lortu zituzten, partida lehiakor batean. Hala, emakumezkoen gazte-mailako Euskadiko Txapelketa poltsikoratuta, apirilaren 26tik 30era bitartean Coruñan lehiatuko dira Aixerrotako emakume gazteek ere. Data horietan, Espainiako Txapelketa egingo dute Coruñan. ◀

Leioatik Portugaleraino, waterpoloko jokalaririk

Leioako waterpolo-klubetako hamabost neska-mutilek parte hartuko dute Portugalgo txapelketa batean, datorren aste-akabuan. Leioztarrak Euskadiko selekzioagaz lehiatuko dira Porton, Fluvial klubak antolatutako nazioarteko txapelketan.

Domekan, Porton ere, bigarrenaz historian jardungo du nazioartean Euskal Herriko emakumezkoen waterpolo-selekzio seniorrak. Portugalen aurka jokatuko dute Vanesa Freire, Leire Sarasola, Ane eta Marta Jaime, Ane García eta Uxue Hernández leioztarrek. ◀

Lucía de la Puerta, Bizkaiko txapelduna

Pasa den otsailaren 26an amaitu zen Bizkaiko Tenis Txapelketa, benjamin-, ume- eta gazte-mailatan. Txapelketa Neguriko Jolaseta klubean jokatu zen; hala, etxeko tenis-eskolako ikasleek erakustaldi bikaina eman zuten. Gazte-mailan, Lucía de la

Puertak emakumezkoen txapelketa irabazi zuen eta Pablo Innerarity txapeldu-norde geratu zen gizonezkoetan. Benjaminetan, emakumezkoen finala derbia izan zen, finalista biak Jolasetakoak baitziren. Azkenean, Irene Arteaga nagusitu zitzaion Mencia Cenigari. ◀

Zabaldu euskararen atea



Getxoko establezimenduen argazkiak

DIRU LAGUNTZAK

ERROTULUAK, TOLDOAK, BINILOAK, PERTSIANAK ETA IBILGAILU KOMERTZIALAK EUSKARAZ IPINTZEKO

Informazioa:

HIZKUNTZA AHOZKULARITZA
GETXOKO SALTOKIEI

94 415 22 52

gehi@getxo.eus

GETXOKO UDALEKO
EUSKARA ZERBITZUA

94 466 00 10/11

euskara.zerbitzua@getxo.eus
www.getxo.eus

CIANOPLAN

94 464 90 87 - www.cianoplan.es
(deskontu gehigarria)

KALKO

94 491 29 83 - www.kalko.net
(deskontu gehigarria)

LA REPRO

94 491 13 95 - www.repro10.com
(deskontu gehigarria)

ULI ARTE PERSIANAS Y TOLDOS

94 403 55 90 - www.persianasuliarte.com
(deskontu gehigarria)

KISER

94 464 73 37 - www.kiser.com.es

RÓTULOS ARRILUCE

94 491 09 83 - www.arriluce.es



Sokatik tireka

JONE
ZARRAGA EGUSKIZA
Herrikoia

Eskualdeko gazteei sokarako deiadarra

Pasa dan zapatuan Euskal Herriko Txapelketa egin zen Laukizen, goma gaineko sokatiran; andrazkoena 375 kiloko kategorian, eta gizonetzkoa 560 kilokoan. Polito egon zan antolatuta eta etxekeok eroan zuten txapela, kategoria bietan.

Andrazkoetan zailtasunak egon dira zortziko taldeak osatzeko, eta aurtengo txapelketa 6 partaidetako taldeakaz egin da, 405 kilokoan 4 taldek parte hartu zaben: Laukizko Gaztedik, Bizkaitik; Ibarrek, Gipuzkoatik; eta Berriozarrek eta Txantreak, Nafarroatik. 375 kilokoan, berriz, 5 talde ibili dira: handian ibilitakoak eta Erandioko Goiherri, 20 urte pasa ostean parte hartu barik, neskakaz bakarrik osatutako taldeagaz, berriz ere plazartu zuen bere neska taldea ilusioz beterik.

Maiatzean lur gaineko sokatirari emango dako hasiera, eta nazioartean gorenko mailan ere ematen den arren, Euskal Herriari ez gaude oso osasuntsu: talde kopuruz gizonetzkotan, eta ez dago txapelketarik emakumezkoetan. Zutabe hau erabili gura nuke deiadarra egiteko gure eskualdeko neska-mutilei anima daitezen hurbiltzera eta gure kirola ezagutzera, ondo etorriak izango dira dagoeneko osatuta dauzen taldetan, edo bestela animatu talde berriak osatzen. Izan ditugu Uribe Kostan eta Uribe Butroen sokatirako taldeak, Getxo, Urduliz, Berango, Gatika... tenkatu soka berriro ere!!

Sokatirak ematen digu, gure kirola izanda, Euskal Herriatik, eta Euskal Herri bezala, nazioarteko txapelketetan aritzea, kirolaren bidez herria egiten dugu eta gure herria ezagutarazten dogu. Merezki du honek ematen doskun zerbaiten parte izatea ezta? Animo ba! Eta erronka bezala, baietz andrazkoen kategorian ere eduki aurtengo lur gaineko Euskal Herriko Txapelketan. ◀

Elkartasuna, zapatuan

Punta Galea txirrindularitza-elkarteak bosgarren elkartasun-jaialdia antolatuko du Fadurako belodromoan datorren zapatuan, martxoaren 18an. Hitzordua goizeko 09:00etan ipini dute, 18:00ak aldera amaitzeko. Ekimena irekita egongo da zikloturismoan eta kirolean zaletutako denentzat, adinari, sexuari eta kirol-mailari dagokienez inolako bereizketarik egin gabe. Modu berean, jaialdiaren elkartasun-motibazioagaz bat datozenak ondo etorriak izango dira. Edizio honen helburua Eidur Arrieta Martín ume getxoztarrari eta bere sendiari laguntzeko dirua batzea izango da, bere ikaskuntza hobetzeko tratamendu profesionala behar baitu. Pun-

ta Galea elkarteak zabaldu duenez, lau eta sei kide bitarteko taldetan eman daiteke izena. Federazioaren lizentzia daukatenez 20 euro ordaindu beharko dituzte pertsonako eta lizentzia barik doazenez, oster, 30 euro. Punta Galea elkarteak anoak eta hainbat sari banatuko ditu parte-hartzaileen artean. Horretaz gainera, txosna bat ere ipiniko dute ekimenaren elkartasun-asmo beragaz. Izen-ematea eta diru-sarrera egin daitezke datorren barikura arte, martxoak 17ra arte, txirrindularitza-elkartearen posta elektronikora mezua bidaliz. Taldearen eta kide denentzakoak ipini beharko dira. ◀

info+: Puntagalea.com / 944 307 631
izen-ematea: puntagalea@puntagalea.com



© JOSU SAN JOSE - PUNTA GALEA

David Movilla teknikoa kaleratu du Barakaldok

David Movilla entrenatzaile itzurbaltzetarra klub barik dago pasaden astelehenean. Barakaldoko futbol-taldeak jakinarazi duenez, klubak egun horretan komunikatu zion teknikoari lan-kontratua iraungi egin ziola. Ezkerraldeko kluba sutu egin zen pasa den astean, Bizkaiko egunkari batek barne-idazki bat argitaratu zuenean, teknikoen arteko elkarlan gaiztotua iradokiz. Movillak batasuna eskatu zuen, arrakasta barik. Movilla Barakaldoren lehenengo taldeko entrenatzaile eta kirol-zuzendaria zen pasa den 2015eko ekainetik, malkoen artean Leioako Kirol Elkartea, bedera-



© JOSÉ JIMÉNEZ - BARAKALDO FUTBOL KLUBA

tzi urtez bere etxea izan zena utzi zuenetik. Aurreko denboraldian Barakaldo igoeratik gertura eroan zuen, baina ez zuen lortu promozio-fasea errematatzea. Aurten, kluba seigarren doa, igoera lortzeko goera zailean. ◀

Jon Rham munduko 26. postuan dago

Jon Rham, golf-jokalari barrikoztarra, munduko sailkapeneko 25. lekuan kokatu zen pasa den astean, inoiz izan duen posturik onenean. Kirolariak eskura izan zuen garaipena Mexiko Herriko Munduko Txapelketako proban, baina azken orduan, Dustin Johnson munduko sailkapeneko buru estatubatuarra nagusitu zen. Halere, Mexikoko Chapultepec klubean lortutako hirugarren postuak munduko taularen goiko aldera eroan zuen barrikoztarra. Orduetik hona, postu bat galdu du Rhamek, Rafael Cabrera espainiarrak aurreratu baitio. Hero India Open proban bosgarren izan da Cabrera. ◀



Iñaki Sáez, Sarrienan. © IÑAKI SÁEZ CAMPUSA

Iñaki Sáez campusean izen-ematea, zabalik

Leioako Kirol Elkartek Iñaki Sáez campuserako inskripzio-epaia zabaldu du daborduko. Aste Santuan egingo dute aipatutako ekimenaren hurrengo edizioa, bi txandetan. Lehenengoa apirilaren 10etik 12ra egingo dute eta bigarrena hilabete bereko 18tik eta 21era bitartean izango da.

Leioako Kirol Elkarteko antolatzaileak nabarmendu duenez, «azken urteotan izandako arrakasta eta harreza zabala direla eta», aurten ere Iñaki Sáez campusak hainbat aldiz erabiliko ditu Leioako Sarriena kirol-instalazioak. Campus hori 2003 eta 2012 urte bitarteko neska-mutilei zuzendu-

ta dago. Lagun Artea futbol-eskola-jokalariak ohiko legez prezio bereziak izango dituzte (70 euro lehenengo txanda; 95, bigarrena; eta 150, biak). Leioan erroldatutako gaztetxoek edo aurretik campusean ibilitakoek, eta, batez ere, Leioatik kanpo erroldatutakoek gehiago ordaindu beharko dute, gehienez jota 200 euro. Eskareen arabera, campusak autobus-zerbitzua ere baliteke ipintzea. Leioako klubak 2008tik antolatzen du futboleko hobetzeko campusa, eta Iñaki Sáez Athleticeko jokalaria eta entrenatzaile ohiaren laguntza izan du. ◀

info+: 675 533 528 / campusteioa@yahoo.es

hirukalagun

Hau da zure txokoa!

hiruka zaitez...
eta abantaila ugariz goza egizu!

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzaile eta partaide izango zara.

Non da? lehiaketa



Sopelako Kurtzio kultur etxearen ekimenez, 3 sarrera bikoitz zozkatuko ditugu Ruper Ordorikaren kontzertuaz gozatzeko, hilaren 24an.

Sarrerak lortu gura badituzu, martxoaren 21a (martitzena) baino lehenago, bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Martxoko saria

Bingen Ametzagaren «Itsaso aurrean» liburua

Bizarra Lepoan elkartearen ekimenez, hilabete honetako sari hau zozkatuko dugu HIRUKAlagun eta bazkide guztien artean. Parte hartu martxoaren 31 baino lehenago.



Zelan egin HIRUKAlagun?



Alboko QR kodea eskaneatuz (telefono mugikorraren bitartez), edo bestela:

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna/
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

HIRUKA Koop.elk. Martikoena, 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileekin harremanetan jartzeko eta HIRUKAren informazioa eta publikizitatea helarazteko. Bestelako erabilpenik erabiltzailearen aurretiko baimen zehatza behar du. Erabiltzaileak nahi duenean datuok zuzentzeko edo kentzeko bere eskubideak bete ditzake helbide honetara idatziz: hiruka@hiruka.eus

Sudokua

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

7				5	3		2
			7				1
2							5
			8	4	1	9	
3			1				
		5	6	3			
	3						
	9		6		7		
		4			2	3	

Soluzioa

9	8	2	6	9	8	7	2	1
8	7	2	1	9	8	2	6	9
6	1	9	2	7	9	8	3	8
2	2	8	8	6	9	9	1	7
7	9	9	2	1	2	6	8	8
8	6	1	7	8	5	2	2	9
9	2	6	9	8	1	8	7	2
1	9	7	8	2	2	8	9	6
2	8	8	5	7	6	1	9	2

+ Guardiako farmaziak, hilaren 16tik 22ra

Barrika

ZULOAGA. Udaletxeko bidea, 2. 946 774 716. Astelehenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Berango

EGUIA. Sabino Arana kalea, 20. 946 680 360. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

IRUSTA. Aitz-gane kalea, 1. 946 680 153. Egueneko 22:00etatik barikuko 09:00ak arte.

Erandio

ARRUTIA. Obieta kalea, 15. ALTZAGA. 944 674 711. Astegunetan, 09:00-22:00.

ARRIOLA. Obieta kalea, 40. ALTZAGA. 944 670 022. Zapatuan eta domekan, 09:00-22:00.

DÍAZ. Etxegorri kalea, 3. ASTRABUDUA. 944 170 291. Zapatuan, 09:00-14:00.

GASTEARENA. Meso, 24-26. ASTRABUDUA. 944 175 200. Zapatuan, 09:00-14:00.

TEIJELO. J. A. Agirre plaza, 8 bis. ERANDIOGOIKOA. 944 530 124. Zapatuan, 09:00-14:00.

Getxo

LOBO. Makaleta etorbidea, 43. AIBOA. 944 308 286. Eguenean, 09:00-22:00.

ALZOLA. Arene kalea, 4. ALGORTA. 944 306 570. Egunero, 22:00-09:00.

ARISTEGUI. Juan Bautista Zabala, 1. ALGORTA. 944 911 798. Astegunetan, 09:00-22:00.

EZQUERRA. Ollarretxe, 27. ALGORTA. 944 303 328. Egunero, 09:00-22:00.

JIMÉNEZ. Illetas, 12. ALGORTA. 944 301 352. Egunero, 09:00-22:00.

LÓPEZ-LINARES. Kasune, 10. ALGORTA. 944 302 632. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

MORON. Bidezabal, 2. ALGORTA. 944 319 007. Astegunetan, 09:00-22:00.

SARRIA. Telletxe, 1. ALGORTA. 944 910 556. Astegunetan, 09:00-22:00.

ARRIOLA. Amaia, 29. AREETA. 944 805 328. Astegunetan eta domekan, 09:00-22:00.

BAYANO. Ibaigane, 9. AREETA. 944 638 460. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

ELLACURIA. Andrés Larrazabal k., 5. AREETA. 944 637 971. Astegunetan, 09:00-22:00.

ANDRACA. Maidagan, 61. GETXO. 944 914 697. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

GALARZA. Aingeruaren etorbidea, 2. GETXO. 944 914 704. Astegunetan, 09:00-22:00.

MONASTERIO. Gorbeia Mendia, 1. ITZUBALTZETA. 944 630 865. Astegunetan, 09:00-22:00.

NÚÑEZ. Ibaiondo, 9. ITZUBALTZETA. 944 631 809. Astegunetan, 09:00-22:00.

Gorliz

ABURTO. Itsasbide, 5. 946 775 452. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

ROMERO. Itsasbide, 20. 946 128 941. Zapatuan, 09:00-13:30.

Leioa

ANGULO. Kandelazubieta, 19. 944 645 185. Eguaztenean, 09:00-22:00.

NARDIZ. Mendibile, 1. Leioa. 944 800 484. Eguenean eta martitzenean, 09:00-22:00.

ORTEGA. Artaza, 8. NEGURIGANE. 944 608 501. Egunero, 09:00-22:00.

ONA. Maiatzaren Bata, 4. PINUETA. 944 630 066. Astegunetan, 09:00-22:00.

SAN ANDRÉS. Larramendi plaza, 2. PINUETA. 946 572 295. Egunero, 09:00-22:00.

Lemoiz

GONZALEZ. Portubidea kalea, 7. ARMINTZA. 946 879 341. Martitzenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Plentzia

ARAMBURU. Erribera, 20. 946 775 301. Astegunetan, 09:00-22:00.

Sopela

BENITO. Etxebarri, 19. 946 766 013. Barikuko 22:00etatik zapatuko 09:00ak arte.

DOLARA. Sabino Arana, 28. 946 129 547. Astegunetan, 09:00-22:00; domekan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.


ITURBE. Iparragirre, 3. 946 764 768. Astegunetan, 09:00-22:00.

ERAZO. Loiola San Andrés, 50. LARRABASTERRA. 946 762 363. Astegunetan, 09:00-22:00.

ZUMÁRRAGA. Gatzarriñe, 6. LARRABASTERRA. 944 047 600. Astegunetan, 09:00-22:00; eguaztenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Urduliz

PARAMO. Aita Gotzon, 9. 946 764 507. Astegunetan, 09:00-22:00.



«Borrokak merezi du»

EHUtik kaleratu zituztenetik, 25 urte

Apirilaren 1ean beteko dira 25 urte Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) bederatzi irakasle lanetik bidali zituenetik. Borrokan segitzen dute horietatik hiruk, irakasleria propioaren eta «konponbide duin eta justu» baten alde.

TESTUA: IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA / GOIKO ARGAZKIA: HODEI TORRES



Leoako campuseko sarreran, pertsona-multzo bat, *Autonomiaren alde, irakaslego propioa*. *Despidorik ez!* goiburuko pankarta eskuetan. Hori da kaleratutako irakasleen gatazkak memoria kolektiboan utzi duen irudia; baina, lan- eta politika-gatazka horrek arrasto sakona du, 1992ko apirilaren 1etik gaur egunera artekoa. Hasierako data horren bezperan, unibertsitatearen kontratu administrati-boa sinatzeko epemuga ipini zien EHUk ia ehun irakasleri. Bederatzik uko egin zioten, eta kaleratu egin zituzten. 25 urte beranduago, hiru irakaslek eusten diote borroka horri: Antton Azkargorta algortarrak, José Luis Herrero eta Enrike Lópezek.

Herrero dioenez, irakasleria propioa eskatzean lan-kontratuaz gainera, «kontu erabat politikoa eskatzen genuen: Euskal Herriak eta EHUk bertako irakasleria propioa sortzeko aukera; Euskal Herriko autodeterminazio-prozesuari eta nazio-subiranotasunari lotuta dago. Horrek ekarri zigun gizartearen multzo oso zabal baten elkartasuna; horrek sostengatu du mugimendua». Lópezek ustez, «EHU eta Euskal Herria autonomoagoak izatea eta independentziaz hurbilago egotea ekarriko luke irakasleria propioak». Azkargorta ados dago: «aldarrikapenaren plus politikoak eman zizkigun koherentzia eta indarra, baina jasan dugun errepresioa ere ekarri zigun; horre-

gatik gaude oraindino kalean». Bederatzi irakasleek 1992ko martxoaren 31n sinatzeari uko egin aurretik, kontratu-motaren gaineko gatazkak hamaika protestaldi izan zituen, urteetan funtzionario izan barik EHUgaz lan-harreman egonkorra izatea helburu. Epaitegietara ere heldu zen gatazka: 1990ean, Bizkaiko Auzitegiak arrazoia eman zien 226 irakasleri, EHU-

“Gure erbesteratzea arrazoitzeke, fakultatea itxi zuten; ertzainek eta zaindarien indarrez atera gintuzten ikasgeletatik”

gaz zuten lan-harremanaren inguruan. Epai hark atea zabaldu zien ohiko kontratu administrati- boak ez ziren beste kontratu-mota batzuk egin ahal izateko. Orduko errektore Emilio Barberak ez zuen epaia onartu, kontratu administrati- boakaz segitu zuen eta helegitea ipini zuen. 1992an, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak EHUri arrazoia eman zion; 97 irakaslek segitzen zuten kontratu administrati- boak sinatu barik. Orduan heldu zen EHUren «ultimatuma».

Herrero akordura ekarri duenez, «kaleratzearen ostean, klaseak ematen segitu genuen, 1993an er-

besteratu gintuztena arte». 1992ko irail-urri aldera, «hasi ziren arazoak», kaleratutako irakasleei «ordezkoak ipintzeari ekin ziotenean». Horren aurrean, lehenengo gose-grebak eta itxialdiak hasi zituzten irakasleek. Mobilizazio ugari egon ziren eta elkartasunezko adierazpen asko jaso zituzten, EHUren barrukoak eta kanpokoak, unibertsitateari gatazka bidera zezan eskatzen. «Ikasleek ere babestu gintuzten eta zenbaitetan okupatu zuten errektoretza», dio Herrero; «Joserra aterazten ahalegindu zirenean, babes itzela zuela konturatu ziren; tentsio-giroa larregizkoa zen eta horrek EHU negoziatzera mugiarazi zuen».

Juan José Goiriarena errektoreak akordioa egin zuen irakasleakaz, EHUren zerbitzu juridikoen babesagaz. Azkargortaren arabera, «akordio hark ez zigun irakasleria propiorik emango, baina guk unibertsitatean segituko genuen beharrean, argitu barik oso ondo zein motatakoa zen gure kontratua». Gatazka bideratzeaz zegoenean, «errektoreari bere taldea matxinatu zitzaion, arrazoi politikoengatik». Hala, EHUren Gobernu Batzarrak akordioa bertan behera utzi zuen boto biren aldeagatik. «Erabaki politiko horretatik datoz jasan ditugun orain arteko ondorio txarrak: gu kalean egotea, beharrean egotea kobratu barik; epaiketak, kaleratzeak, erbesteratzeak eta hori dena hortik dator». Azkargortaren ustez, Goiri-nak gidatu zuen negoziazio-prozesua izan zen «seriotasunez egindako bakarra». Geroztik egon diren «kontaktuak tenperatura hartzeko eta gu banatzeko saioak besterik ez dira izan: berba egitera zetozen, baina, aldi berean, atxilotzen gintuzten; ezer eskaini barik». Zapuztutako konponbide-ahalegin haren ostean, egoerak okerrera egin zuen. Lópezek azaldu duenez, «gure erbesteratzea justifikatzeko, fakulta-



© 7 BAIETZ UNIBERTSITARION ALDIZKARIA

tea itxiarazi zuten; 1993ko azaroaren akabuan, egun batean indar denak kontzentratu zituzten: ertzainak, zaindaria eta abarrak. Klaseak ematera gindoazela indarrez atera gintuzten ikasgeletatik». Fakultatea berriro zabaldu zuten abenduaren 3an eta gertaera errepikatu egin zen: «kaleko arropaz jantzitako polizia eta zaindarien indarrez atera gintuzten. Hori izan zen pankartaren lehenengo eguna sarreran», oroitarazi du Lópezek, «salbuespen-egoera ezarri zuten, guretzat; baina, baita ikasleentzat ere».

Hala, fase berriari ekin zioten hiru irakasleek. Herrero dioenez, «erbesteratzea behin eta berriro apurtzen genuen: sartzen ginen, Poliziak atxilotu eta komisariara errotan gintuzten, epaiketak geneuzkan... Urteak eman genituen horrela. Ekimenik garrantzitsuena Enrikerena izan zen, ia 40 eguneko gose-grebarena. Gose-greban zela, atxilotu egin zuten, komisariara eta auzitegira eroan. 1997ra arte, eskubideak berrezartzeko eguneroko bataila izan zen. Lau urteko erbesteratze-zigorra ipinita ziguten, baina guk hainbat denbora pasa genuen barruan, berbarako, LABeko egoitzan itxialdian. 1997an, erbesteratzea desagertu zen *de facto*». Pello Salabururen agintaldian bizi izan zituzten atxilotetaldi gehien, baina baita urtebeteko negoziazio bat ere. Diotenez, «simulakro bat besterik ez zen izan, gu gelditu egon ginatezen». Egoera hartan desadostasun taktikoak sortu ziren irakasleen kolektiboan: «nire ustez mobilizazioek segitu behar zuten, ez nuen uste ekintzak baretu behar genituenik», dio Lópezek. Desobediencia eta Euskal Herriko 5.000 kilometroko birari ekin zien Lópezek. Giroa ez zen baretu, Pérez Iglesias errektore izan zen arte 2004an. Herrero eta Azkargortak kontaktua zeukatzen Anjeles Iztueta Hezkuntza sailburuagaz, lantzen zebilen Uni-

bertsitate Legean eragiteko. «Legeak gure aldarrikapenen mamia jaso zuen: irakasleria propioa, eta funtzionarioakaz parekatzea» ziurtatu du Azkargortak. «Gezurra ematen badu ere», PPK zabaldu zuen irakasleria propiorako atea Madrilen, CiUren proposamen bat onartuta, «katalanen laguntza behar zuelako». Hortik etorri ziren Iztueta legea eta EHUren irakasleria propioaren onarpena. Gainera, 2004ko legeak gehigarri bat zeukan, kanpoan egondako irakasleak birsartzeko. «Guri begira egindakoa dirudi», dio Azkargortak. Unibertsitatean bost urte lan egin izana eskatzen zen. Iñaki Goirizelaia Bizkaiko errektoreordeak negoziatzera deitu zien 2005ean, «EHUk gu barnertzeko agindua baitzeukan», Azkargortaren ustez. Baina, Zapateroren Gobernuak helegitea ipini zion legea-

“ Kolektibo bakarra gara, arrazoi beragatik kaleratu gintuztelako; konponbideak ere kolektiboa izan behar du ”


ri, Espainiako Konstituzioaren aurkakoa zelakoan; legea izoztuta geratu zen. «Aurreikuspenak nahiko txarrak ziren», dio Herrero: «sindikatuak legea urardotu gura zuten, Madrileko gatazka konpontzeko». EHUk konstituzio-helegitea konpondu bitartean negoziatzen segitzea eskaini zien kaleratutakoei, «baina bakarrik gu berriro sartzearen gainean, irakasleria propioa jorratu barik», oroitarazi du Herrero. «Gure kolektiboaren zatiketa hor hasi zen: Jexumari Zalakainek eta Joserra Etxebarriak baldintza horiek onartu zituzten; guk gurago izan genuen itxaron, borroka ez

zegoelako amaituta helegitea atzera botata arte. Arazoa konpondu negoziatuko genuela esan genien». Gero, EHUk López «trabak» ipini zizkion. Lópezek bost urte lan eginda baditu EHU, baina baldin eta kontuan hartuz gero kaleratuta egonda irakasten jarraitu zuen denbora; «eta klase horiek onartzeko, borondate politikoa beharrezkoa da», dio Lópezek berak, «Goirizelaia esan zidan nik ez neukala inolako aukerarik EHUa itzultzeko». 2007an, helegitea bertan behera lotu zen, eta EHUk aldi baterako irakasleak kontratatze bidea ezarri zuen; José Ramón Etxebarriari eta Jexumari Zalakaini atea zabaldu zien unibertsitate itzultzeko, funtzionario bihurtu barik. Herrero arabera, «EHU ez gintuen negoziatzera deitu; baztertu egin gintuen eta gure adiskideek bermatu zuten bazterketa hura, kolektibo bi ginela adierazita. Bolo-bolo zabaldu zen guk ez genuela negoziatu gura, eta hori faltsua da». Zalakainek eta Etxebarriak sinatu eta hurrengo egunean, «erresistentzia-kutxa ere desagerrarazi zuten, borroka amaituta balego legez», Lópezen esanetan. 2009an, sinadura-bilketa egin zuten eta Ibarretxe lehendakariari helarazi zioten. «Horrek eraginda edo, errektorearen mezulari bat etorri zitzaigun. Bizpahiru bilera egin, gure eskaerak idatziz pasatu eta berak Goirizelaia helarazi zizkion. Erantzunik ez zen izan». Ordurako, Patxi López zen lehendakaria.


Unibertsitatearen defendatzailearengana jo zuten 2014an, baina errektoreak ez zuen erantzun; aurten ate berbera jo dute, eta badakite espediente Nekane Balluerka errektore berriari helarazi diotela. Aurrekoei eskatutakoa eskatzen diote: «konponbide dugu eta justua». Ez dakite zein erantzun izango duten. Halere, Lópezek, Azkargortak eta Herrero argi daukate orain artekoak «merezki izan duela». ◀

Lehen/Orain

Plentzia, 1975



© ELIXABETE HORMAZA



Erretratua

Xabier Pujana Rodríguez

Barrikako tabako-saltzailea, herri-kirolaria eta Olentzeroa



Barrikako estanko eta janari-denda bakarra zuzentzeko amaren lekukoa hartu zuen 42 urteko barrikoztarrak, orain dela hiru urte.

Amaren eskutik hartu zuen Xabier Pujanak Barrikako dendaren lema, orain dela hiru urte. Bere amamak zabaldu zuen denda, tabako-saltoki moduan, orain dela urte asko. Hark alabari utzi zion, eta horrek Xabier semeari. «Txikitatik lagundu izan diot amari dendan. Hasieran, tabakoa bakarrik saltzen zuen; baina, Barrikako gainontzeko dendek itxi zutenean, gauza gehiago saltzea erabaki zuen», azaldu du barrikoztarrak. Horrenbestez, lehengo estankoa janari-denda ere bada orain, «lehen-goak bezalakoa». Auzokideen armairuak hornitzeaz gainera, Gabonetan opariak banatzen ditu barrikoztarren artean, ikazkinaren antzera. Hiru urte daroatza egiteko horretan, eta oso gustura dago pertsonaia hori ordezkatzeko: «giro ona dago eta oso ondo antolatuta dago dena. Gustura nago beti». Hala ere, aitortzen du ezin dituela ordu denak bete; bigarren egunean ordezkobatek hartu ohi du Pujanaren lekukoa,

berak goizean dendan lan egin behar duelako. Ostera, horregatik baino ezagunagoa da herri-kiroletan diharduelako. Hamaika txapelketatan jardundakoa da Pujana, eta hainbatetan txapeldunorde izandakoa, berbarako trontzan eta zaku-lasterketetan. Gaur egun, Getxoko herri-kirolen taldean

“Faduran izango den sokatirako munduko txapelketarako taldea sortu nahi dugu”

parte hartzen du. Andra Mariko probalekuan entrenatzen du, astelehen, martitzen eta eguenetan, 19:00etatik 21:00etara. Aurten, sokatira-taldea ataratzeko dute helburu. «2020an sokatirako munduko txapelketa izango da Faduran, eta herriko taldea bertan ez egotea pena litzateke», aitortu du. Beraz, taldea laster sortzea espero du. ◀

Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua